

ikazuriaga
baserriaren ikerketa

2016ko iraila
egilea: isabel olalla gonzalez

tutorea: ana azpiri albistegui
kotutorea: ibon telleria julian

etxalde, baso, landa **baserri** herrialde, lurralde, eskualde

ekintza sozioekonomikoen zelula antolatzaile

AURKIBIDEA

01.XEDEA.....	007
02. ESKUALDEA ETA LURRALDEA. EUSKAL HERRIA.....	011
03. HERRIA ETA ESKUALDEA. URDAIBAI.....	021
04. BASERRIA ETA HERRIA. NABARNIZ.....	029
05. BASERRIA. IKAZURIAGA.....	043
06. BASERRIAK. ZIERRE - IKAZURIAGA.....	095
07.ERANSKINAK.....	105
08. ONDORIOAK.....	111
09. ETORKIZUNERAKO LERROAK.....	115
10. BIBLIOGRAFIA.....	119

01. Xedea.

XEDEA

Ikerketa lan hau, baserrien inguruko jakinminak bultzatuta burutu da.

Euskal herriko baserriaren arkitektura ezagutzeak eta ulertzeak, nondik gatozen jakitea inplikatzan du, eta ondorioz, non aurkitzen garen, eta norantz joan behar garen erabakitzeke tresnak erakutsiko ditu.

Ikazuriaga baserria ikertu da lan honetan, eskualdeko baserri bat, ikusi bezain laster interesa sortarazten duen horietakoa. Berau bisitatzeko Ikazuriaga familiaren baimena eskuratuta, eraikuntza honen analisiaren bitartez, baserria ulertzeko aukera azaltzen da.

Ikerketa lana den heinean, lehenengo garaiko baserrietako bat izan daitekeen Ikazuriaga baserri honen azterketa, eta analisia, dokumentatzeko eta ezagutarazteko asmoa du lan honek.

Horretarako landu diren atalburu ezberdinen artean, hipotesiak egingo dira, baserriak bizi izan dituen garai ezberdinak identifikatzeko, bere sorreratik gaur egun arte. Horrez gain, pairatu dituen interbentzioak sailkatu eta fase ezberdinekin erlazionatuko dira. Dokumentatuak dauden tipologiekin alderatu eta beste baserri batekin konparatuko da. Ikazuriaga baserriaren planoak egitea eta argazki zein testu bidez dokumentatzea izan dira baita, helburuak.

02. Eskualdea eta lurraldea. Euskal Herria.

EUSKAL HERRIKO BASERRIAREN ARKITEKTURA

.Euskal baserria

Euskal arkitekturaren adierazpen zabalaren artean baserria, Euskal Herriko ibar atlantikoetako nekazaritza etxe tipikoa, aukeratu dute Euskal Herri osoko modelo arkitektonikoen artean arketipo esanguratsua bezala, eta behar bada bakarra. Eraikin hauen sendotasunak eta neurri handiek, harrizko eta zurezko eraikuntza egokiak, eta zutik oraindik baserri ugari egoteak, eta horrek berekin dakarren bizitzeko moduaren antzekotasuna, miresten zabala eragin dute. Mirespen hori Guillermo de Humbolt eta William Bowles bezalako XVIII. mendeko bidaiari europarren testigantzetan islatu zen.

Mendeetan euskal gizarte tradizionalaren epizentro eta bere egonkortasunaren ardatz bezala hartuta, baserria familia bizitzeko etxea, edo nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen gunea baino askoz ere gehiago da. Halaber, etxeko gurtza-tenplua da, eta bertatik, naturarekin eta naturaz gaindizko sinesmen aldeko gizakiekin harremanak sendotzen dituzte.

Aipatzekoa da, azken mendean baserrietan bizitzeko moduak oso ezagunak direla, Aita Jose Miguel de Barandiaran eta bere laguntzaileek 1925-1934 urteen arteanegin zituzten informazio etnografikoko lanei esker. Ordura arte eskaintako guztiaren sintesi egokiena, Julio Caro Baroja kultur antropologoak euskal etxeei eskaini zizkion orrialdeak izan ziren. Orrialde horiek, Bigarren Mundu gerraren ondoren argitaratutako “Los Vascos” izeneko obra ederrean bildu zituen.

Urte haietan ere baserriak Euskal herriaren kultur ondarearen elementu garrantzitsuak bezala aldarrikatzen hasi ziren. Bertan, ordura arte “monu-

mentu historiko eta artistiko” bezala sailkatzen zituztenetarako bakarrik gordeta zeuden balio historiko, arkitektoniko eta sinbolikoen multzoa azaldu zen.

.Baserriaren definizioa, historiaren eta arkitekturaren ikuspegitik

Arkitekturari dagokionez, ez da zaila euskal baserria definitzea. Ez da, ordea, lan laburra inguruko eskualdeetako landa-etxebizitzetatik bereiztea eta berezko izaeraren ezaugarriak adieraztea, beti ere Europako zonalde epel eta hezean dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako familiako etxebizitza-motak erreferentzia gisa hartuta. Bolumentriari begiratuta bloke gisako etxea da, trinkoa, familia bakarrekoa, askea eta isolatzea helburu duen egiturakoa. Oso etxe handia da, ondoko eskualdeetako edozeinetako landa-etxebizitza tipikoak baino handiagoa: aglomeratua, patiorik, galeriarik, hegalkinik eta adosaturik gabea. Baserriaren helburua bere burua hornitzea da eta tamaina handiari esker, barrundegi berezituaren bidez bada ere, eraikin bakar batean bil ditzake hamaika funtzio: etxebizitza, ukuilua, mandioa, dolarea, biltegia, upategia, lantegia, ganbara, lastategia, usategia, erlategia eta bestelakoak.

Baserriak, klima euritsura egokitzeko neurrizko inklinazioa duten hodi-teilako estalkiak ditu, batez ere bi isurikoak. Euritik babesteko hegalkin handiko egarbeak ditu, besoak euskarri dituztela. Horrez gain, euri-jasa handiak ekar ditzaketen ipar-ekialdeko haizeak maiz izaten bada, kostaldean bezala esate baterako, alboetako harrortzak jarri ohi dira aurrealdean.

Fatxada nagusiaren orientazioa batez ere eguzkiaren eta topografiaren araberakoa izaten da. Baserrietan bizi direnek ahalik eta eguzki ordu gehien izan nahi dituzte eguneko, berotzeko eta lanak eguzkiaren argi onarekin egin ahal izateko. Fototropismo horrek, bada, baldintzatzen du kokapena. Halabaina, aldi berean, baserriaren oinak luraren gora-beheretara egokitu behar du, horretarako bizkarra horietara egokituz.

Baserria XV. mendean Euskal herrian sortu zen nekazaritza etxea dela esan daiteke. Hau aurrez zeuden Erdi Aroko etxolen aurrerapauso izan ziren, herrialdeko baldintza sozial, ekonomiko eta teknologiko berrien erantzun. Gaur arte iraun duten lehenengo baserrien antzintasuna bostehun urtekoa da gehienez ere eta ez dugu ezagutzen gaur egungo

etxeetan identifika daitekeen aurreko landa-erakinetako inolako erakuntza-erakundeak.

.Lehenengo baserrien sorrera

XV. mendearen amaierako urteetan ohikoak izan ziren harri-hormako etxe berrien erreferentziak dokumentuetan. Garai horretan hasi zen aldi historikoa XVI. lehen bi herenetan luzatu zen eta praktikan euskal baserri modernoak, gaur egun ezagutzen dugun tipo arkitektonikoa, aldi horretan sortu zela esan dezakegu.

XVI. mendeko azken hamarkadetan euskal ekonomiako sektorerik aktiboena gainbehera etorri ziren eta krisia sakona izan zen. Hau, gari eta artilearen nazioarteko merkataritzaren gelditzea, Ternuako arrantza-tokien blokeoa, Itsas Armada Garaiezinaren porrota 1587an eta 1598ko izurrite gogorra zela gizartearen indarrak behera egin zuen eta atsekabea izan zen nagusi.

Arazo horiei eta beste hainbati aurre ezin egin eta euskal gizartea landatar bihurtu zen berehala. Lehen merkataritza-konpainiak sortzearen aldeko ziren merkatarien eta aristokraten familiek baserrietara itzuli zituzten beren begiak, hori baitzen beren kapitalekin egin zezaketen inbertsiorik seguruenak, porrot egiteko beldurrik gabe. Noblezia txikia errentatzaile eta endogamiko bihurtu zen guztiz. Beren ondorengoentzat administrazioa, armadako eta elizako enpleguen segurtasuna bilatzen zuten eta beren diru eta jabetzetarako, berriz, maiorazkoaren babes menderaezina, oinetxeari lotutako ondasunak sakabanatzea eta saltzea eragozten zuena. Bestalde, nekazarien eta langileen seme-alabek, lehen hirietako lantegietan (ikatzarekin, itsasoarekin, mandazantzarekin, siderurgiarekin edo ontzizgintzarekin zuten beharretan) lan egiten zutenek, ez zuten soroetara jotzea baino beste aukerarik izan. Bertan bilatu behar izan zituzten beste eremu batzuetan bizirauteko aurkitu ezin zituzten baliabideak. Krisiaren ondorioz, bada, ugaritu egin ziren baserriak eta laborantzako lurak.

Gero eta itxiagoa zen landa-mundu horretan baserria bihurtu zen komunitatea antolatzen zuten gizarte- eta politika- harreman guztien sarearen protagonista. Berezko nortasuna zuen subjektu bilakatu zen eta berori izateak jatorria, abizena eta gizarte tradizionalako posizioa bermatzen zizkion, baina gobernuan, ordezkarietako adierazpenetan eta herriko ba-

liabide komunalen gozamenen esku hartzeko eskubidea ere.

.Baserriaren legea

Nekazaritzako ekonomia-ustiapenerako unitate den aldetik, euskal baserriaren oinarria lurra eta etxearen jabetza osoa oinordeko bakar bati uztea izan da. lege hori ankerra da beren gurasoen ondasunik jasoko ez duten seme-alaben ikuspegitik, baina ustiapenen azalera ez zatitzea eta horri beti nekazariak bizirauteko behar duten gutxienekoaren gainetik eustea bermatzen du. Oinordeko bakar bat izendatzean oinarritutako jardun diskriminatzaile hau berezkoa da natur baliabide mugatuak eskaintzen dituzten eta etxea gizarte eta auzo eskubideen subjektu zentralizat hartzen duten mendialdeko lurraldeetan.

Bizkaian sistema tronkalaren definizio juridikoa eta oinordekoaren izendatze askea 1452ko Foru Zaharrea jaso zen. Hori, ondoren, 1526ko Foru Berriak berretsi zuen, gaur arte. Ondasunak, hots, baserria eta lurrak ezin ziren banandu, legatu edo arrotzei dohaintzan eman. Hori gainera, batera eman behar zitzaizkion zuzeneko oinordekoetako bati, familiaren barruan nahi bezala aukera zitekeenari.

Bestalde, egoera ez zen hain argia Gipuzkoan. Izan ere, probintzia gisa Gaztelako Koran barne hartuta zegoenez, 1348an onartutako Errege Foruaren menekoa zen.

Gisa horretan belaunaldiak etxearen ondarearen gordailuzain eta kudeatzaile baino ez ziren. Hori jabetzari eusteko eta areagotzeko betebeharra zuten. Baina ez zuten berori zatitzeko edo horrekin espekulatzeko aukerarik. Jabetza gurasoak bizi ziren artean transmititzen zenez, bi belaunalditako bi senar-emaztek zuten aldi berean arbasoen oinordetzaren inguruko erantzukizuna. Hori beren gain hartzen zuten elkarrekin lan egiteko eta etxea mahaia eta janaria banatzeko konpromisoa.

Testamentuan alde batera utzitako anai-arrebak ez ziren berehalakoan botatzen etzetik. Halabaina, horiek jakin bazekiten bi aukera baino ez zituztela: familiaren etxean jarraitzea betirako mendetasunean edo etxea behin betiko uztea ezkontzen ziren edo beren baliabideak lortzen zituzten unean bertan. Oinordetzarik ez zuten gutxieneko diru kopuru bat edo altzariren bat ematen zitzairen beren bizitza berriari ekin ahal izateko.

Jabetza higiezinari zegokionez, teila bat, adar bat eta lur pixka bat baino ez zuten jasotzen. Sinbolo soil horien bidez adierazten zen baserriatik, fruta-arboletatik eta labore-lurretatik zegokien zatia.

Hori dela eta, euskal nekazarien arteko talderik ugariena errentari edo maizterrena zen. Horiek besteren baserrietan bizi ziren kontratu berriztagarriak zirela medio eta tokian tokiko aristokraziako familiak mantentzen zituzten beren errentekin. Kontratu zaharrek iraupen laburra izaten zuten, lau eta hamar urtekoa, oro har. Kontratu berritzen zen aldiko, balditzak berregokitzen ziren, aurreko akordioa zenbateraino bete zen egiaztatu ondoren, beti ere. Hitzarmen horien arabera urteko hogeitau eta berrogei gari-aneza ordaindu behar ziren, baita beste hainbat kantitate sagar, gaztaina, kapoi eta gazta ere. Alabaina, horrez gain ezinbestekoa zen sagardiak edo zuhaitziak landatzea, karearekin lurra aberastea eta etxebizitzan bertan egin beharreko konponketa-lan txikien gastuak beregain hartzea. Konponketa txikitat jotzen ziren teila berritzea edo eraikuntza txiki osagarriak egitea (labea edo lastategi adosatua adibidez).

Horiez gain baserrietan “morroiak” ere izaten ziren. Nekazaritzako gizonen mirabe horiek jabeentzat, batzuetan baita soro handien errentari zirenentzat ere egin zuten lan, otorduaren, logelaren eta janztekoaren truke. Morroiak oso gaztetan hasi ohi ziren zeregin horretan eta gehienetan bizitza osoa ematen zuten bertan. Hori dela eta morroiak familiako bizitzan hartzen zuten barne eta horiekiko tratua atsegina izaten zen. Hala ere ez zuten soldatarik izaten eta inoiz ez ezkontzeko etsia ere hartu behar izaten zuten maiz. Baserrietan gutxitan izaten ziren neskameak, baina, aitzitik, ugariak izaten ziren baserria utzi eta hirietako etxetara zerbitzari gisa joaten ziren neska gazteak.

.Baserrien eraikuntza

Euskal Herriko baserri zahar ia guztiek aditu ziren maisuek diseinatu eta eraiki zituzten, bere ofizial-taldeak eta morroiak lagun zituztela: eta ez horrenbeste nekazariak berek.

Maisu horiek berak ziren, gainera, elizak, jauregitxoak eta bestelako toki-ko obra zibilak eraikitzen zituztenak. Iraganeko arkitekturaren munduan, horrek Euskal Herriko haranetan zuten gauzatzean behintzat, ez zegoen bereizketarik eta, aitzitik etengabekoa izaten zen maila jasoaren eta herri-

koiaren arteko informazio eta jakintzen trukea. Etengabeko truke horren eta baserrien eraikuntzan maisu profesionalak parte hartzearen ondorio izan zen baserrien irmotasun eta kalitate handia. Horien pareko maila nekez aurkituko dugu Europako landa-etxebizitzaren artean eta, hain zuzen ere, horrek erakusten du bereziki aintzat hartzen zirela estilo artistikoak eta berrikuntza teknologikoak.

XVI. mendean baserri eder bat eraikitzea gurdietarako hamabi idi erostean parekoa zen. XVII. mendean amaieran 300 metro karratutako oina zuen etxe irmo bat eraikitzeke kostua 800 dukat ingurukoa zen: inbertsio hori nekazari-familia baten hamabost urteko lanaren baliokidea zen gutxienez.

.Baserriaren tipologia ezartzeko irizpideak

Euskal baserria nekazaritzako eta abeltzaintzako etxebizitzaren tipo arkitektoniko bat da, berezko ezaugarri morfologiko bereziak eta hogeitau azpitipo historiko baino gehiago dituena.

Parametro komun batzuen barruan tokiko eta eskualdeko eraikuntza-tradizio desberdinak bizi dira elkarrekin. Horiez gain, gremioen eta autoreen araberrako joerak izaten dira maiz. Produktzio-eredu eta ekonomia-espezializazio desberdinak ditugu, luraren jabetzaren eta ustiapenaren inguruko erregimena gauzatzeko hainbat formula eta, batez ere, herri etxearen definizioan eragina (estilo artistikoen aldaketaren, eraikuntza-tekniken, labore berriak sartzaren eta, besteak beste, erosotasunaren, intimitatearen, segurtasun pertsonalaren, higienezaren eta abarren inguruko pentsamoldeen aldaketaren ikuspegitik) izan duten historiaren bilakaerako hainbat etapa.

Historiari begira, hiru etapa nagusi bereiz ditzakegu baserriaren bilakaera tipologikoan. Etapa horiek artearen, historiaren eta arkitekturaren garai klasikoaren izenetara bil ditzakegu. Horri jarraiki, honakoak bereiz ditzakegu: batetik, hasierako garaiko baserri gotiko-errenazentistak, XV. mendean azken hamarkadatik XVII. mendean erdialdera arte garatu zirenak. Horien ostean, barrokoaren garaiko goren aldia izan zen. XVII. mendean erdialdetik XVIII. mendean amaiera aldera arte. Azken etapen, berriz, eraikitako baserri berrien ezaugarrietan nolabaiteko gainbeheraren adierazgarriak hauteman daitezke eta aldi hori XIX. mendeko

neoklasizismoarekin bat dator.

.Oinarrizko gotiko errenazentistak

Baserri gotiko-errenazentista guztiak familia bakarreko eraikinak dira. Euskal Herriko soroetan bizi izan zen ekonomia-oparaldian eta gizarte-bakean oinarritutako aldiaren ondorio. Gure lurraldearen historian gisa honetako etxebizitzetan ukuiluratu ziren lehen aldiz abereak urte-saso jakin batean. Etxebizitza horiek, gainera, ekonomia dibertsifikatua zuen gizarte batean errotu ziren. Gizarte horretan nabigazioa, artisautza, merkataritza eta armada ziren nekazaritza alde batera uztea ahalbidetzen zuten ordezkotako jarduerak. Baserri horien produkzioaren zutabe izan ziren, behe-aziendaz gain, sagardoa egiteko sagastien laborantza zabal eta zerealak produzitzeko ahalegin neketsua eta errentagarritasun handirik gabea, artatxikian eta garian oinarritutakoa.

Aldi honetako baserrietako etxe-ekipamendua oso soila izaten zen, ia altzaririk gabea eta familiak, erabiltzeko gela urrikoa izan ere, mundu horretan lotsak eta intimitate pertsonalak ez zuen ia tarterik eta erosotasunaren kontzeptua ez zen artean ezaguna herri-klaseen artean. Tokiko baserrien aldaera guztietan etxearen barneko azaleraren laurdena baino gutxiago eskaintzen zaio bizitzeko lekuari. Bien bitartean, espazioari dagokionez protagonismo nagusia dute ukuiluak, hainbat motatako biltegiak eta nekazaritzako produkzioa transformatzeko makina handiek (dolareak esate baterako). Aldi oso honetan baserria lanerako tresna izango da, historiako beste edozein alditan izango dena baino gehiago. Horrenbestez, gutxiago izango da etxe, familiaren babesleku gisa ulertuta. Igartubeitia, Azpegortako edo Olabide baserriek argi eta garbi erakusten dute belaunaldi honetako baserrietan makina bizitokiari gailentzen zitzaizola nabarmen.

Garai honetako baserrien egitura-ezaugarri komunitario bat sostengu-eskeletoan pieza bakarreko haritzezko pilare handiak erabiltzea da, kanpoaldeko itxiturak oholezkoak, harrizkoak edo habeteriaz egindakoak izan. Horrek zerikusi handi du Erdi Aroaren amaieran Euskal Herri Atlantikoan baso-baliabide ugari izatearekin eta, horrenbestez, erazketa-industria indartsua eta ondo antolatutakoa izatearekin. Horrez gain, zurezko eraikuntza-materialen prezioak baxuak ziren, batzuetan

baita guztiz doakoak ere, gehienetan baso eta haztegi komunaletik hartuak izaten zirelako.

Horrez gain, aipatzekoa da Euskal Herrian Alemania hegoaldeko armatzeko arotzeriako berezko teknologia hedatu zela. Erdi Aroaren amaierako arotz suabiarrek ebakitzeko, mihiztatzeko eta txarrantxatzeko erabiltzen zituzten berrikuntza teknologikoak Europako beste eskualde batzuetan barrena ere zabaldu ziren. Alabaina euskal haranetan horiek maisuki nagusitu ziren tokiko arkitekturaren modeloetara. Hori dela eta, ez dago ia neurri batean zein bestean teknika horien zordun ez den XVI. mendeko euskal baserriak. Pilare bertikalak eta frontal edo jazena horizontalak aurpegiz mihizatutako beso bidez zurruntzea, silueta makurreko kaxa konplexuekin, “enarazko” deiturikoekin, inportatutako arkitektura-formula horien adierazgarri bereizle bihurtu zen. Teknika hori benetako bertuosismoarekin garatu zuten euskal arotzek. Horri dagozkion adibideak ugariak dira. Horren argigarri ezin hobeak ditugu Aliri eta Larramendia, beren artean antzekotasunik ez dutenak. Gaur egun oraindik ez dugu behar bezala ezagutzen arotzeria alemaniarreko teknika aurreratu horiek Euskal Herrira zein transmisio-bide geografiko edo kulturaletik iritsi ziren.

Belaunaldi honetako baserriak gotikotzat edo errenazentistatzat jotzea ez da gehiegizkoa, nahiz eta landa-arkitekturaz aritu. Izan ere, horietako gehienetan erabili izan da garaiko estilo-lengoaia, baoen hutsarteak, fatxadak erritmoak eta apainketarako bestelako elementuak atontzerakoan. Larre, Torresagasti edo Landetxo Goikoa baserrietako (hurrenez hurren Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko landa-inguruneetan daudenetako) oji-ba-arkuek agerian uzten dute baserriak eraikitzen zituzten maisuek ezin zituztela alde batera utzi beren garaiko moda eta konbentzio formalak eta ez zegoela benetako etenik estilo-arkitekturaren eta gaur egun, ikuspegi sinpleegi batetik, herri-arkitektura anonimo eta atemporal adierazpenarekin ezagutzen denaren artean.

XVI. mendetik XVI. menderako aldatetaren ondorengo urteetan baldintzak antzekoak izan ziren eta eraikitzaileek eta komitenteek inolako erreparorik gabe erabili zituzten oro har Plateretzkoarekin edo Errenazimenduarekin identifikatu ohi diren baliabide estilistikoak. Undajauregi baserriko leiho konopial bikoitzak edo Leioa baserriko fatxadaren osoko diseinu harmoniatua dira horien lekuko. Izan ere, egiaz, aparailuen eta

horma azalaren tratamendua bera baserrien eraikuntzaren eta arkitektura kultu garaikidearen formulen arteko komunikazio bikainaren adierazle dira. Paramentu pobregoak (adibidez, harlauza arbastatukoak edo uharriak) izan baziren harren, Errandone Zahar baserrian eskuairatutako harlanduek edo Astigarribian aztertutako baserrien aparailu gotikoez adierazten duten bazela identitate komun bat tokiko elizetan eta jau-regietan lan egiten zuten harginen eta eraikitzaileen eta nekazaritzako etxeak egiten zituztenen artean. Azkenik, fundazioen erakusle diren plaka batzuek (Berrizbeitia baserrikoak adibidez, 1572ak) mezu humanistak eta estilo manieristako diseinua dituztenek, beren izate hutsarekin ezeztatzen dute euskal landa-mundua autista moduan ibili zela bere garaiko Europako kultur mugimendu handien zantzurik ere hartu gabe.

XVI. mendean jada egin zituzten saioak ondoren historian zehar garatu diren baserrien fatxadaren konposizio-tipoei jarraiki. Aldaera horietako batzuk berehalakoan desagertu ziren, baina beste batzuen arrakasta iraunkorra eta jarraitua izan zen mende horretan. Beste batzuek azkenik ia lozorroan iraun zuten berrehun urtetan, une jakin batean, gizartea, teknikak eta ase beharreko premiak desberdinak ziren une batean, modu harrigarrian itzarri ziren arren.

Egiturari dagokionez, XVI. mendearen hasieran sortu eta Euskal Herriko lurraldeetako baserrien bilakaeraren ardatz izan ziren oinarritzko hiru tipo ditugu: tipo bizkaitarra, gipuzkoarra eta lapurtarra.


.Tipo bizkaitarra

Bizkaiko baserriaren arketipoa 1500 urtearen inguruan sortu zen eta horren adierazle dugu Mungiako Landetxo Goikoa baserria. Baserri horrek luzekako hiru habearte ditu eta egitura petralez egindako armaturari eusten dioten hargintzako fabrikarik gabeko pieza bakarrek pilare askeekin egindakoa da. Mota honetako etxeen ezaugarri bereizleetakoa bat da estalkiko petralak beren artean tiranteen lerrokatze lodi baten bidez lotuta agertzea, kontrapetralen azpian zepoz segurtatuta.

Gisa honetako baserrietan mandioak, lehenengo oinean fatxadaren erdialdean, egon ohi denak, protagonismo handia izaten du eta gehienetan aurrealdean zentratutako ataripea izaten dute. Fatxadaren erdialdeko egitura zurezko da eta atzeraemana izaten da, harrizkoak izaten diren

alboekin erkatuz. Baserririk landuenen kasuan, zeharkako suhesi gisako horma bat izaten da. horiek lau arku ere izan ditzakete, abereen askak bertan jartzeko. Mehelin hori, gizakiak eta animaliak bereizten dituen alegia, izan da historian zehar Bizkaiko etxe onenetakoen elementurik iraunkorretako bat. Egitura horrek suteetatik babesteaz gain, espazioa higiene handiagoarekin eta zentzuz antolatzea ahalbidetzen zuen. Oinak simetrikoak izaten ziren gehienetan eta etxebizitza iraunkorraren eremua beheko oinaren aurreko aldera mugatu ohi zen. Hala ere, noiz edo noiz udako logela gisa erabiltzen ziren fatxada nagusiko alboetara begira zeuden goiko oinak. Horiek ospearen adierazgarri izaten ziren, familiak horretarako baliabideak zituen neurrian, jakina.

Geografia-eremuari erreparatuz gero, tipo honetako baserriek Bizkaiko lurralde osoan beretu zuten, baita Deba ibaiaren goiko arroa ere, Gipuzkoan. Halaber, Aramaioko eta Araiako Haran Atlantikoak, Araban. Mendebalera begira, gisa honetako baserriak ziurrenik ez ziren inoiz Aguera ibaia baino harantzago iritsi. Are gehiago, Artzentalesen eta Turtziozen aurkitu izan diren ale akanak salbuespentzat jo ditzakegu, beste-lakoak baitira nagusi bertako nekazaritza-etxebizitzaren artean. Horiek ia kubikoak dira eta XVI. mendean zabaldu ziren inguru horretan.



Tipo bizkaitarra XVI.mendea
Tipo Vizcaino s.XVI



.Aldaera errenazentistak

XVI. mendean berreraikuntza-lan ugari egin ziren batean eta bestean eta horrek eragina izan zuen ordura arte euskal baserriarren bizitoki izan ziren etxola eta etxaldeetan. Mende horretan asmatu zen baserri modernoak dei daitekeena. Alabaina, guztiak ez ditzakegu nekazaritza-etxeen modelo jakin batera bildu. Aitzitik, etxebizitzaren aldaera ugari aurkitzen dira, egituraren, bolumenaren eta funtzioaren inguruko oinarritzko ezauzgarri komuna dituzten arren, materialen eta konposizio baliabideen konbinazio desberdinekin gauzatzen zirenak. Hori dela eta, kanpora begira, horien irudia aski desberdina izaten zen. Horrela, aztertu ditugun lauren urte baino gehiagoko eraikinak gogoan izanik, ondoriozta dezakegu badirela atariperik gabeko baserri bikainak, Zelaia Aierdi, Zeraingo Jauregi edo Etxezabal adibidez. Beste batzuetan, berriz, ataripea izango da aurrealdeko elementu nagusia: Landetxo Goiko, Zuñiga, Yaundenea, Errandone Zahar edo Urtza baserrietan kasu. Fatxada batzuetako oinetan hegaldurak izaten dira, Izaga eta Mendeletxen esate baterako. Beste batzuk, aldiz, plano bertikal bakarrekoak izaten dira, halla nola Elorreta, Larre eta Aliri. Zenbaitetan, ostera, zurezko itxiturak izaten dira gailen, Artabene, Arandi Zahar eta Emaldi Goikoa izenekoetan, besteak beste. Harri hutsez egindakorik ere bada, jakina, Antzieta edo, lehen ere aipatu dugun beste bat, Larre, batzuk besterik ez adieraztearren. Edonola ere, hedatuago daude mixtoak, harriz eta otaesiz egindakoak, Bitoriano Zeraingo Jauregi edo Murua lekuko.

Errenazimenduaren garaiko baserrien azpitipoen aukera oso zabala da. Hori hainbestearinokoa izaki, aldi horretan saiakuntzak izan zirela nagusi baieztatzera iritsi gaitzke, ondoren, baserriaren funtzioetara hobeto egokitzea ahalbidetzen zuten eta eraikitzeak kostu txikiagoa eskatzen zuten modeloen aldeko aukera egiteko, beti ere XVII. mendean garatuko ziren prestazioen interesen arabera.

Laburbilduz, honakoak izan ziren aldi honetako azpitipo nagusiak:

.Harrizko baserria

Ezagutzen ditugun euskal baserrien tipo goiztiarren artean ditugu eraikin trinkoak, atariperik gabekoak eta fatxada guztietan, beheko oinean bai behintzat, horma-harriko edo aparailu gotikoko itxiturak dituztenak.

Oso baserri hermetikoak dira eta horien barruan nekez sar zitezkeen argia. Bertarako sarbidea ez zegoen zentratuta eta sartzeko harlanduzko arkuen eta bao kultu batzuen, ojibal, konopial nahiz erdi-puntukoak, azpitik igaro behar zen. Gehienetan birtailatutako ateburu edo leihoburu monolitikoak izaten dira: leihotako kasuan arkuen forma dutenak eta atektako kasuan, berriz, arku dobelatuak.

Harrigarria da eraikin hauetako hormen, gehienetan orri hirukoitzekoak izaten direnen, sendotasuna, batez ere kontuan hartzen badugu gehienetan pieza bakarreko pilareetan oinarritutako barnealdeko egitura dela eta hori jartzea ez dela izaten beharrezkoa forjatuen eta estalkiaren armaduraren pisuari eusteko. Agian jatorrian gehiegizko neurriko paramentu horiek erabiltzeak zerikusi handiago izan zezakeen gizarte-ospearekin benetako eraikuntza-premiarekin baino.

Horri dagokionez, azpimarratzeko modukoak dira baserri hauek eraikitzeak moduaren eta estiloaren inguruko elementuen, eta aldi berean eraikitzen ari ziren dorretxeen eta jauregi gotiko-errenazentisten arteko begi bistako antzekotasunak. Horietatik ideia asko hartu zituztela pentsa liteke. Izan ere, egiaz nekazaritzako etxearen hermetikotasunak ez zien alderdi on askorik eskaintzen bertan bizi ziren nekazariak. Alabaina, irimotasuna berme ona izan zitezkeen eraikinaren iraunkortasunari begiratu. Gisa honetako baserriek zituzten mugetako batzuei aurre egiteko, ezinbestekoa izan zen egarbe handiko hegalak jartzean, gutxienez fatxada nagusian. Horiei esker eurtik babestutako gune bat sortzen zen eguneko argitan egin behar ziren lan batzuk bertan egin ahal izateko edo etxearen barruan tokirik ez zuten tresnak eta baliabideak (gurdia, zakurra edo egurra esate baterako) bertan gorde ahal izateko.

Atariperik gabeko harrizko baserriak euskal lurralde guztian barrena zeuden, batez ere Gipuzkoan eta Nafarroa Beherean. Hala ere, Aiara haranean eta Bizkaian ez zen inoiz oso preziatua izatera iritsi (horri dagokionez salbuespen izan ziren ipar-ekialdeko eskualdeak), eskualde horietan ataripea duten etxeak lehenesten bait zituzten.



Tipo errenazentista zuratua XV-XVI.mendeak
 Tipo renacentista de piedra s.XV-XVI



.Ataripea duen baserri errenazentista

Erdialdean haritzeko pilareek markoztatutako eta bere hedaduran frontal-habe lodi batek definitutako ataripea duen etxea da jatorrizko Bizkaiko tipoaren eratorririk zuzenena, formula merkeagoak eta nekazari gehienentzat eskuragarriago izango zirenak lortzeko asmoz sustatutako bilakaera izan zuena. Sinplifikatzeko eta kostuak murrizteko ahalegin horretan, alde batera utzi zen ataripea inguratzen duten alboetako gorputzak aurreratzeke ohitura. Halaber, saihestu egin ziren goiko oinetako bao kulture guztiak hala ere, pieza bakarreko pilareei cutsi zieten, bai fatxada nagusian, bai barneko egituran. Horrez gain, ez zuten baztertu petralaren eta kontrapetralaren sistema estalkiko armadura.


Baserri hauen bilakaeraren hurrenkera oso nabarmen agertzen da fatxada nagusiak izan dituen aldatetetan. Alboetako gorputzak aurreratzeke ohitura, baserri zaharrenen XVI. mendearen lehen erdikoan, ezaguri zena, ez zen pauso bakar batean baztertu. Aitzitik, hasiera batean beheko oineko hormetara mugatu zen eta ondoren, XVI. mendearen amaieran, hasi ziren harri-hormako hormatalak aurreko pilareen maila berean jartzen.

Tarteko aldi zehar goragune bat egin zen fatxadaren altueran. Hori etxearen alboetako aurpegietara ere zabaldu zen. Goragune hori erai-

kuntza-material desberdinak bereizten dituen lerroa da: harrizkoak beheko oinean eta zurezko arinak goikoan. Zurezko ogitua horietan gero eta bakanago agertzen dira matxinbratutako oholtzako kanpoko itxiturak. Horien ordez hormarri arinak, adreiluak (kasurik aurreratuenetan, batez ere Nafarroa behean) eta adobe gordina erabiltzen ziren.

Prozesu honetan pixkanaka desagertu den beste elementu bat hegalkin gisako ganbara da. Horrek, edonola ere, etxearen erdialdeari bakarrik eragiten zion, atalondoaren ardatzaren gainari, hain zuzen. Hori desagertu egin zen, fatxadaren gainerako zatiarekin berdinez.

Harrigarria eta argitzen zaila da ataripea zuten XVI. mendeko baserrien hedadurak ez izatea jarratasun geografikorik. Modelo honek ospe handia izan zuen Araian eta ia Bizkaia osoan Enkarterrietan izan ezik. Halaber, oso harrera ona izan zuen Lapurdin, Nafarroako mendialde atlantikoan eta Ultrapuertos izeneko merindade zaharretan. Alabaina inoiz ez zuen Gipuzkoan finkatzea lortu. Horren arrazoi izan liteke ataripeari eskaintako aurrealdeko habeartea zuen etxearen eta sagardo-prentsaren egituraren arteko bateraezintasuna. Gogoan izan, garai hartan dolarea ezinbesteko osagaia zela Gipuzkoan egin behar zen edozein baserrien proiektuan.



Tipo errenazentista ataripeduna XVI.mendea
 Tipo renacentista con soportal s.XVI



02 Eskualdea eta lurraldea. Euskal Herria.

.Erdiko ataria duen baserri zuratua

Beheko oina harri-hormaz egina eta gainerako zatian zurezko habetaria agerian duten ataripe dintelatuko baserriak izan ziren modelo nagusi Bizkaiko eta Arai haraneko landa-arkitekturan XVII. mendetik XIX. mendera arte. Bi eremu horietan ez ezik Baztan eta Bidasoa inguruko harroetan ere izan zen horrelakorik, baita Lapurdin ere, nahiz eta neurri txikiagoan izan. Eraikin horiek ez dute jada pilarerik fatxadan eta habe batekin estali beharreko argia handiegia denean horien antzera jardungo duten harrizko kolomak edo zurezko zutikoak jartzen dira osagarri gisa.

Adreilua izaten da zuraren tartekoa betetzeko gehien erabiltzen den materiala eta, horri dagokionez, azpimarratzekoa da Durangaldeko eremua, bertako tradizioari jarraikiz zeramikazko piezekin leuntzen dituztelako fatxadaren eskeletoa osatzen duten habeak. Berrizko Isuntza Goikoa baserria izan liteke XVII. mendearen azken herenera arte bizirik iraun zuten mota honetako baserrien arteko bikainena. Adreilua bezain ohikoa izan zen harri-horma txikia erabiltzea eta ezagunak dira, halaber, burdinolako zeparekin eta topa porotsuko lauzekin betetako zurezko egiturak.

Kolomak edukitzeak eta ataripeko janbetan moldura aberatseko mentsulak izateak baserri hauek ekonomia baliabide ugari zituztela eta hargintzako obra handiak beregain har zitzaketela pentsaraz badiezagukete ere, egiaz eraikin horiek aukera merkea ziren, bizilagun garaikideen harrizko arkuekin konparatuz gero. Material hori neurrian erabiltzen zen gisa honetako etxeak eraikitzerakoan eta horrelakoek ez zuten tradiziozko suhesi gisak ere, ukuilua eta bizitzeko eremua bereizi ahal izateko.

Ataripea duten baserri zuratuen aldaeretakoa bateko baserrietan portikoa fatxada nagusian egon ohi da, baina ez ardatzarekiko zentratuta, baizik eta ahal dela, izkinan bertan. Gisa horretako baserriak ez dira oso ugariak, baina tarteka agertzen dira Bizkaian eta Araban, batez ere Nerbioi ibaiaren arroan. Horrelakoetan kolomak erabiltzen dituzte portikoko habearen euskarri gisa. Horiek XVII. mendearen bigarren erdian eta XVIII. lehenengoan eraikitako etxeak dira, oin txikiak dituztenak eta aurreko aldeko habearte guztia ataripea egiteko erabili denez, bizitzeko moduko espazio txikia dutenak. Agian horregatik izaten dira beti horrelakoak familia bakarrarentzat.



Tipo barroko zuratua erdiko atariarekin XVII-XVIII.mendea
Tipo barroco de entramado con soportal central s.XVII-XVIII

03. Herria eta eskualdea. Urdaibai.

URDAIBAI


Aztergai den baserria, Bizkaian kokatzen da, Urdaibaien. Eskualde hau, 20 udalerriz osatzen den Biosfera Erreserba da 1984. urtetik eta natur baliabide ugari hornitutako 22.452,38 hektarea ditu.

.Orokortasunak

1984. urtetik Biosfera Erreserba bezala ezagutzen da, Bizkaiko kostaldean kokatzen den Busturialdeko eskualdea. Jatorriz Urdaibai izena du, urde (basurde) eta ibai dun eremua. Oka ibaia da, padura honen ardatz nagusia, hau Gernikako Oiz mendian jaiotzen da eta hareatzetatik, estuario-tik zehar mugitzen da Mundakan Kantauri itsasoarekin topo egiteraino. Bukaeran Izaro irla aurkitzen da, muga bailitzan.

Historiaurretik gizakiaren esku hartzea handia izan da, eta nekazaritzari esker, askotariko paisaia lortu izan da, zeinek, garapen naturala, laborantza, larre eta basoko landareak oso ongi uztartu dituen.

Guzti horri esker, ingurugiroko kontserbazio gradu garai bat lortu da, ondorioz, Euskal autonomi erkidegoko paisaia ugariena aurkitzen da Urdaibain, baita fauna bariedade handia, hegazti familiakoak, asko migratzaileak. Babes eta antolamendu legeak Urdaibaiko Biosfera Erreserba, lau alorretan sailkatzen du; itsasadarra, itsasbazterra, kantauriko artadia eta arkeologikoa. Fisikoki hiru ingurune bereizten dira, mendia, ibar eta padurak eta kosta, portu eta hondartzak.



Urdaibai.

.Lurraldea

Urdaibaik, bere baitan, hamabi udalerrri ditu osotasunean, eta hamar partzialki. Guztiak 230km²ko azaleran kokatzen dira, luzeran 20km ditu eta gehienez 12km zabaleran. Udalerriak ondorengoak dira: Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Forua, Gernika-Lumo, Ajangiz, Mendata, Arratzu, Kortezubi, Gautegiz Arteaga eta Elantxobe. Horrez gain partzialki, Muxika, Ibarrangelu, Bermeo, Nabarniz, Ereño, Arrieta, Errigoiti, Morga, Zornotza eta Arbazegi Gerrikaitz.

Nukleo nagusienak Bermeo eta Gernika dira, euren artean eta Zornotzara arte, N-634 errepidea igarotzen da. Puntu horretan Bilbora jarraitu edo Bilbo-Donostiarako A-8a elkartzen dira. Trenak ere Urdaibai zeharkatzen du, Bermeon hasten da sare hau ere, eta paduren ondotik doa Gernikara helduz eta ondoren Bilbon bukatuz.

.Xehetasuak

Urdaibaiko bihotza den estuarioak, 12km luze eta gehieneko km1 eko zabalera du. Ipar-mendebalde hego-ekiade norabidea du eta itsasoko gora beherek 4,5mko marea aldaketa sortzen dute bertan. Oizen jaiotzen den Oka ibaia, itsasora eta gune hareatsuetara iristen doan heinean zabalitzen doa. Mareen bolumena oso handia izanik ibaiko ura eta itsasoko ura osotasunean eta homogeneoki nahasten dira. Bi hauen artean sortzen diren korranteak nahitaezkoak dira sedimentazio pilaketa gertatzeko. Ibaiak egiten duen ibilbidean zehar gune ezberdinak bereizi daitezke:

- Gune hareatsuak, Mundakatik Kanalarainoko azaleran, hareazko barrak Laidako hondartza eratzen du.
- Gune mistoak, Kanalatik Bekoa irlaraino (Gautegiz Arteaga) aurkitzen dira, bertan ibaiaren ibilguaren zabalpena ematen da eta hareazko lupetz gunea eratzen dira.
- Lupetz gunea, Bekoa irlatik Gernikaraino lupetza dago baina gune honetan harea gabeko lupetza.
- Ibai gainezkatzearen lautada gunea, barnealdean geratzen da, bertan paduren eta ibai lautaden arteko trantsizioa gertatzen da.

.Fauna eta flora

Oso aberatsa da Urdaibaiko fauna eta flora, ingurune ezberdinak sortzen dira eta euretako bakoitzak bere ezaugarri begetal eta animalidun ekosistemak sortzen dituzte.

Estuario eta padura ertz eta hareatzetan, altz, sahasi eta tamarindoak, geza eta putzuak aurkitzen dira. Itsaslabar arroksuan, txilardi, artadi eta haritzak, itsas haizeak eta inguru kresaltsuak. Erreka bazter eta sakonune hezeetan, haltz, sahasi eta lizarrak, putzuak eta uhaldiak. Sakan hezeetan, hostotsuen baso mistoa, haltz, lizar, astigarrak, serbalak eta urkiak, inguru ospel, harritsu eta irristakorra. Mendi mazela garaia eta isurialde eguzkituetan, haritzak, lurzoru hareatsuak eta lehorra. Kareharrizko haitzak, zubi arriskutsuak. Kantauriko artadia. Gune garaietan, hego isurialdean, pagadia. Lurzoru heze eta freskoa.

.Ekonomia

Busturialdean metalurgia izan da lan nabarmenena. Bermeoko portu arrantzalea, Kantauriko garrantzitsua da, Oka inguruko industria eta naturak hemen duen balioak sortutako turismoak ere eragin handia dute eskualdeko garapen ekonomikoan.

-Lehenengo sektorean, biztanleriaren %14ak dihardu. Gehien bat Bermeon ematen da arrantzarekin, bestea nekazaritzan, baserrietako ustiapen txikietan. Bizkaiko biztanleria kontutan hartzen badugu, %2ak baino ez dihardu sektore honetan.

-Bigarren sektorean, biztanleriaren %36ak dihardu, %28a industrian eta %14a eraikuntzan. Metalurga gehien bat Gernikan ematen da, Muruetan eta Bermeon aldiz, arrantzari lotuak.

-Hirugarren sektorean, zerbitzuak geratzen den %50a. Eskulanak eta turismoa gehienbat. Landetxe sare handia ere sortu izan da gutxika.

.Garapen iraunkorra

Urdaibaiko Biosfera erreserbako babes eta garapeneko legeak, helburu argia du, lurraldeko ekosistemak, flora eta fauna babestea baieta hauen berreskuratzea bultzatzea. Izan ere Urdaibaik garrantzi handia du natura

mailan, zientzian, hezkuntzan, kulturaren, aisian eta sozio-ekonomian. Horretarako legeak ezarri dira; lehenengo sektoreak adibidez produktua gehiengoa beren lurraldean utzi behar du, industriak ingurugiroa errespetatu behar du, turismoa kanpo promozioan eta bisitarien gehikuntzan oinarritu behar da...

.Dentsitatea

Eskualdeko analisia egin da, udalerrietako azalera eta udalerrietako biztanleria datuak bildu eta dentsitateak ikertzeko.

Eskualdea ezagutzeko asmoarekin, ezaugarriak jakin ondoren azterketa txiki batzuk egin dira. Busturialdeko plano gainean udalerriak kokatu eta dentsitate, ekonomia eta garraio publikoaren sareak duten eragina ikusi ahal izateko.

Hurrengo orrian agertzen den lehenengo grafikoan, dentsitatea irudikatu da, eta horretarako, biztanleria eta udalerrien azalera kontutan hartu dira. Irudikapenean ikur handiena duenak dentsitate handiena du eta alderantziz, beraz argi dago, Gernika dela dentsitate altuena duen udalerria eta Mendata, dentsitate baxuena duena.

Azterketa honen bitartez ikusi daiteke non dagoen jende fluxu handiena, eta nola ez, udalerrien azalera. Emaitzak gehigo desberdintzen dira jende gutxi bizi den udalerriek azalera handia dutenean. Eskualdean kontzentrazio gune ezberdinak egotea antolamendurako hona izan leike, beti ere udalerrri guztien arteko lotura bermatzen bada. Izan ere eskualdean buru batzuk egotea ona da eta horietatik besteak antolatzea, espazio eta izaera ezberdindun herriak edukitzeko.

Askotan hurrengo grafikoetan ikusiko dena gertatzen da, herri batzuetan dentsitate gutxiago izanik, baliabideak eta apiegiturak murizten direla, eta urdaibaiko kasuan zehazki, asko nabaritzen da Mendata, Errigoiti, Nabarniz... kasuetan. Jende gutxi bizi den arren beste puntu garrantzitsu batzuk dituzte, lehengaiak hala nola eta hauek indartu beharko lirake.

.Ekonomia

Eskualdeko analisia egin da, udalerrietako enpresa, lantoki kopurua az-

tertuz eta hauen sektoreetako sailakpenak ikertuz.

Hurrengo orriko 2. grafikoan Urdaibaiko udalerrri bakoitzeko ekonomia aztertzeko, bakoitzean dauden enpresa kopuruaren arabera grafika egin da. Planoan ikusi daiteke enpresa gehien dituen Udalerria Gernika dela, aldiz, gutxien dituen Mendata da. Enpresa kopuru handiena duen bigarren udalerria Bermeo da.

Datuak bildu ondoren, argi ikusten da, 3.sektoreak hau da zerbitzuen sektoreak beste bi sektoreetako enpresa kopurua bikoiztera heltzen dela, udalerrri batzuetan boiztu baino askoz gehiago ere.

Zerbitzuen sektorean, tabernak, hotelak... sartzen dira, eta zati bat eskualdekoentzako bada ere, gehiengoa turismoari begira dago, Mundaka adibidez.

1. eta 2. sektoreetako enpresa kopurua oso urrun dago 3.sektoreko kopurutik, dauden baliabideak egonda, harritzeko datua nonbait.

Grafiko honetan, zirkunferentziaz gain, barrua koloreztatu da, Udalerrri bakoitzean, sektoreko zenbat langile dagoen adierazteko. Hemen ere argi ikusten da 3. sektorea dela langile gehien dituen sektorea.


.Garraio publikoa

Eskualdeko analisia egin da, udalerrietatik igarotzen diren garraio publiko zerbitzuen sarea aztertuz. Autobusen zerbitzu publikoa eta trenen zerbitzu publikoen ibilbide eta maiztasunak ikertu dira.

Hurrengo orriko azken grafikoan, Urdaibaiko udalerrri bakoitzetik igarotzen diren garraio publikoen sareak irudikatu dira. Sare horiek Bizkaibus eta Euskotrenek ahalbidetzen ditu. Euskotrenek Urdaibai osoan sare bat baino ez duen bitartean, Bizkaibusek, ibilbide ezberdinak ditu.


Egunean bidai gehien egiten duen ibilbidea, Bermeo, Gernika, Zornotza, Bilbo sarea da. Sare horregatik eta beste sare batzuegatik, Gernika da, Urdaibaian garraio publiko sare eta jaria kortasun handiena duen Udalerrria, ondoren Muxika eta Bermeo izango direlarik. Gutxien dutenak, Ajangiz, Nabarniz, Ereño eta Errigoiti udalerrriak dira. Azken grafiko honek argi adierazten du, urdaibaiko ezkeralden mugimendu gehiago dagoela.

03 Herria eta eskualdea. Urdaibai.




Udalari bakoitzeko dentsitatea.
Zirkunferentzia handiagoa dentsitatea altuagoa den heinean. Beraz, zirkunferentzia handienetan biztanle asko eta azalera gubi, eta alderantziz.

Urdaibai. Dentsitatea.



Udalari bakoitzeko enpresa kopuru totala.
Zirkunferentzia handiagoa enpresa kopurua igotzen den heinean.
Udalari bakoitzeko langileria 3 miltzotan sailkatu da, sektoreen arabera.
horria, 1.sektorea marroia, 2.sektorea grisa, 3.sektorea

Urdaibai. Ekonomia.



Udalari bakoitzetik, egunean igarotzen diren garraio publikoak eta hauen maiztasunaren neurketa.
Zirkunferentzia handiagoa garraio zerbitzu eta maiztasuna handiagoa denean.
..... Tren sarea. Bakarra, bermeo-bilbo.
- - - - - bilbo-bermeo
~~~~~ Autobus sare ugari.

Urdaibai. Garraio publikoa.

## ESKUALDEKO ANTOLAMENDUA

Urdaibaiko azterketa egin ondoren, grafikoen bitartez argi ikusten da lehenengo sektorearen egoera zein den, eta baserriei dagokienez, nekazaritzaren egoera ez da onena eskualdean.

Egoera hori indartua agertzen da, hirugarren grafikoan, zeinetan garraio publikoaren ibilbideak ongi adierazten duen eskualdeko zirkulazio handiena non ematen den.

Urdaibaiko ezker aldean, herri nukleo handiagoak aurkitzen dira, 2. eta 3. sektoreak garatuago daude eta zirkulazioak alde horretatik ematen dira.

Eskuma aldean, landa-eremuak indar handiagoa hartzen du, herriak dentsitate txikiagotunak dira eta hauetara, garrio publiko bidez iristeko zailtasun handiagoak aurki ditzakegu. Hala ere, eskuin alde honetan lehenengo sektoreak ez du garai batean zuen indarra.

Kevin Lynch-en *The image of the city* liburuan ageri diren kontzeptuak aplikatzeko saiakera egin da, eskualdeko antolamendu bat proposatzeko asmoarekin.

Eskualdeko herrien arteko komunikazioaren lanketa bat proposatzen da, estrategikoki kokatutako herri-buru antzolatzaile bidez, nodo moduan.

Herriak auzo moduan, bata bestearen osagarri, buruak elikatuz.

Inguruko baliabide naturalak ertz moduan.

Bideak herrien arteko loturarako elementu fisiko moduan.

Elkarlanean arituko den eskualdea marraztu nahi da, zeinetan sektoreen grafikak parekatu nahi diren, eta lotura eta harremanak sendotu.



Urdaibai. Antolamendua.



*04. Baserria eta herria. Nabarniz.*



## NABARNIZ

Nabarniz Bizkaiko ipar-ekialdeko udalerría da, Busturialdean kokatua eta 236 biztanleduna.

Ingurune naturalari eta klimari dagokionez, Nabarniz itsas mailatik 360 metro gorago dago batez beste. Herriko punturik altuena Iluntzar mendia da (728 m). Klima ozeanikoa du, Euskal Herriko kostaldetik hurbil dauden herri guztiak. Urteko prezipitazioak 1.300 l/m<sup>3</sup> inguru izaten dira, eta tenperatura 12-13 gradu zentigrado batez beste. Inguruko herriak baino altuera handiagoan dagoenez, Nabarnizek hotz eta haizete handiagoak jasaten ditu.

Nabarnizek udalerrí mugakide ditu Ispaster eta Gizaburuaga ipar-ekialdean, Aulesti hego-ekialdean, Mendata hego-mendebaldean, eta Arratzu eta Kortezubi ipar-mendebaldean.

Herriak sei auzo ditu guztira: Ikazurieta, Intxaurraga, Uribarri-Zabaleta, Elexalde, Merika eta Lekerika.

Nabarnizen bizi izandako lehen biztanleen aztarnak Kristo aurreko 2800. urte ingurukoak dira. Garai hartako giza hezurak aurkitu dira Ikazurieta auzoan dagoen Ondaro haitzuloan.

Horrez gain, Kristo aurreko VI. mende inguruan eraikitako gotorleku biren aztarnak aurkitu dira Iluntzar mendian eta Maruelezako kastroan Arrola mendian. Mendi hori toki estrategikoa zen Mundakako itsasadarren behatokia zelako. Gotorleku horiek zeltiarrek eraikitakoak ziren. Zeltiarren ostean erromatarrek etorri ziren Euskal Herrira.

Erromatarren inperioaren erorketatik Erdi Arora doazen bost mendetako argibide gutxi dago. Dena den, X. mendetik aurrera, gaur egungo auzoak eratuz joan ziren, betiere baseliza baten inguruan:

Ikazurieta auzoa San Kristobal baselizaren inguruan, Uribarri San Miguel baselizaren inguruan, Merika auzoa San Gregororen inguruan, Lekerika auzoa Santiagoren inguruan eta Elexalde Andra Maria elizaren inguruan.

Nabarnizko ekonomiaren ardatza nekazaritza izan da betidanik, eta horren oinarri baserría. Baserri bakoitzak bere ortua, abelburuentzako zelaiak eta fruta arbolak ditu. Baserriak bertan bizi zirenei behar zutena eskaintzen zieten unitate buruaskiak ziren, autonomoak.

XX. mendeak aurrera egin ahala, gauzak aldatuz joan ziren. Bizkaiko nekazaritza-herri gehienetan gertatu bezala, landa mundua gainbehera etorri zen industrializazioaren garapena zela eta.

Gauzak horrela, baserriak eta herria bera hustuz joan ziren eta herriko biztanle askok Gernikara lehenik eta Bilbora ondoren jo zuten, bizimodu hobearen bila. Biztanleriaren jaitsierak behera jo zuen 2001ean eta ordutik apur bat igo da, baina XX. mende hasierako biztanle kopurutik oso urruti oraindik ere.


1960ko hamarkadan Euskal Herriko hainbat herri txikirekin gertatu bezala, Nabarniz ere, indarrez beste udalerrí handiago bati anexionatzen behartu zuten. Horrela, 1964an Nabarniz Gernika-Lumoko auzo bilakatu zen. 1987an, berriz, Gernika inguruko beste hainbat herri egin bezala, independentzia berreskuratu zuen.

Demografikoki, Busturialde eskualdean biztanle gutxien daukan herria da Nabarniz:

1970 eta 1980ko erroldetan Nabarnizko biztanlería Gernikako biztanleriarekin hartzen da, anxioa dela eta.

Azpiegiturei dagokienez, Nabarniz Gernika eta Ereño arteko BI-3242 errepideak zeharkatzen du iparraldetik hegoalderako norabidean.

Garraio publikoari dagokionez, Bizkaibusen A3526 lineak herria Gernikarekin lotzen du astelehenetik ostiralera, honako ordutegian, 07:35, 14:00 eta 19:30.



Nabarniz. Plano historikoa.

**LABURDURAK**

- C = Cuadra
- Ca = Cabaña
- Ch = Chavola
- Co = Corral
- F = Fuente
- H = Horno
- L = Lavadero
- M = Manantial

**LABORANTZA**

- L = Secano-cereales, hortalizas y prados
- Ep = Secano-cereales, Erial a pastos
- R = Secano-cereales, Monte alto de robles
- H = Secano-cereales, Monte alto de hayas
- P = Secano-cereales, Monte alto de pinos
- E = Secano-cereales, Monte alto de encinas

**AUZOAK**


- 1 = Elejalde
- 2 = Merica
- 3 = Lequerica
- 4 = Uribarri - Zabaleta
- 5 = Inchaurragas
- 6 = Icazurietas

**BASERRIAK**

- 1 = Arrola-Goikoa (de Mendata)
- 2 = Arrola-Bekoa (1)
- 3 = Muguirabekoa ( de Murélag)
- 4 = Iturreta (6)
- 5 = Arguiarro (1)
- 6 = Arguiarro-Zarra (1)
- 7 = Cementerio (1)
- 8 = Atarrene (1)
- 9 = Rementeriakoa (1), Abadtxea (1), Ayuntamiento (1), Elizpe.Goikoa (1) y Elizpe-Bekoa (1)
- 10 = Aguirretxebarri (1) y Torre (1)
- 11 = Atxeagarre (1), Barberukoa (1) y Flores (1)
- 12 = Escuela Nacional de niños (1)
- 13 = Iglesia (1)
- 14 = Ibarra (3)
- 15 = Aldekoa (3) y Oruta (3)
- 16 = Txoritxu (3)
- 17 = Iturri-ko-Goikoa (2)
- 18 = Iturri-ko-Bekoa (2)
- 19 = Merika-Etxebarri(2)
- 20 = Urza (2) y Uriko-Etxebarri (2)

- 21 = Zelai-Etxebarri (1) y Escuela Nacional de niñas (1)
- 22 = Zelaiondo (1)
- 23 = Aberaztegui (1)
- 24 = Elizondo (1) y Hospital (1)
- 25 = Maltzena (4) y Ezkua (4)
- 26 = Ipintxe (4)
- 27 = Andiketxe (4)
- 28 = Zalbizkoa (4)
- 29 = Ermita de San Miguel (4)
- 30 = Agarre (1)
- 31 = Urikoa (2), Mendiguren (2), Montetxe (2) y Munitei (2)
- 32 = Arzu-Goikoa (2) y Arzu-Bekoa (2)
- 33 = Beititze (2)
- 34 = Goikolea (1)
- 35 = Ziarreta-Goikoa (1) y Ziarreta-Bekoa (1)
- 36 = Airo (1)
- 37 = Zabaljauregui (1)
- 38 = Kantera (1)
- 39 = Burdiategui (1)
- 40 = Muguira (1)
- 41 = Goroztizaga (6)
- 42 = Ordeñabe (6)
- 43 = Ermita de San Cristobal (6)
- 44 = Anie (6)
- 45 = Mutio (6), Lazane (6), Martone (6) y Etxezar (6)
- 46 = Artxube (5), Mane (6) e Ikazuria-Goikoa (6)
- 47 = Zabalintxaurreta (5)
- 48 = Intxaurrega (5)
- 49 = Aboro (5)
- 50 = Goiketxeta (5)
- 51 = Oraindi (6), Goitia (6) e Ikazuria-Bekoa (6)
- 52 = Dendarikoa (4), Aboitxene (4) y Ezkondun (4)
- 53 = Bizkoa (4) y Bengoetxe (4)
- 54 = Goiketxe (4)
- 55 = Erretiz (1)
- 56 = Larrinetxebarri (5)
- 57 = Larrinaga (5)
- 58 = Uruburu (5)
- 59 = Ibaguen (3)
- 60 = Etxebarri (3)
- 61 = Ermita de Santiago (3)
- 62 = Ormetxe (3) y Ardantza (3)
- 63 = Urikoa (3)
- 64 = Bizkoa (3)
- 65 = Urikobekoa (3)
- 66 = Atxuloa (1)






Nabarniz. Ingurua.




Nabarniz. Eleiza eta Baselizak.


04 Baserria eta herria. Nabarniz.




Nabarniz. Baliabideak.



Nabarniz. Bidexkak eta ertzak.



Nabarniz. Egungo antolamendua.  
 Nodoa, eleiza  
 Mugarriak, baselizak  
 Auzoak, oinezko 10min erradioa



Nabarniz. Berantolamendua.

- Kevin Lynch. *The image of the city* .
- .Baselizak mugarri, auzoen sortzaile,
  - .Auzoak herriko nukleo moduan, bata bestearen osagarri,
  - .Herri erdialdeak mugarri.
  - .Inguruko baliabideak ertz moduan.
  - .Bidexkak elementu fisiko moduan, elkar osatzeko lotura.

## NABARNIZ ETA INGURUETAKO HERRI ARKITEKTURA

Nabarnizen eraikuntza arkitektoniko erlijiosoak garrantzi handia izan arren, auzotarrak bizi diren baserriak osatzen dute ondarea.

Izan ere, elizatearen ezaugarri nabarmenena, hauek dira, nekazaritza oinarri duen ekonomia baten beharrianak sortutako garai eta errotekin batera, Erdi Aroa ezker tarte geografikoaren protagonista garrantzitsuenak eta lehenengo denboretatik eratu ziren udal mugarte honetako ekintza sozio-ekonomikoen zelula antolatzaile legez.

Azken urteetan, luzaroan “kultur ondarea” deitu den kontzeptua aplikatzerakoan, baserria eta bere eranskinak (beraien aztarnak aztertzen oso zailak diren eraikinak, gehienak oso eraldatuak izan direlako baserri-tar ekonomiak bere protagonismoa galdu duenean), etnologoen ikergai izateari utzi diete; horrela, forma aldeko ezaugarrieci merezi duten tokia egin zaie.

Forma hauek batzuetan artistikoak ere badira eta horregatik onerizte hau, azken urteotan, orainsu arte, nagusi izan den eksklusibismoari nagusitu zaio; izan ere, orain arte ikertzaileak eta erakunde ofizialak kanon akademizisten barruan egindako eraikinak ikertzea bultzatu izan dute eta gehien baten hiri aldeetan kokatuak, zerbait baztertuz Bizkaiko kulturak hain berea duena, kasu honetan, Nabarnizko komunitatekoak, hau da, baserriak eta bestelako eraikinak alde batera utzita, baselizak, inguru hauek populatu zituzten, baserriarren sentimendu erlijiosoaren agerkari herrikoia.

.Baserriaren itxuraren bilakaera nabarnizen

Nabarnizko udalerrian baserria da bertako komunitateetan garai bakoitzean eman ziren arazo ekonomiko eta sozialen historiaren agerpena. Beste eraikin motekin gertatzen ez den bezala, baserria ez da soilik bertan dagoen jendearen bizilekua, baserriarrari bere ekintza garrantzitsuenarako, abeltzaintza eta nekazaritzarako behar dituen “tresnak” ematen dizkion tokia ere bada. Baserri ondoan garaia egoten zen uztetan lortutako laboreak gordetzeko, korta behealdean (ganadua pertsonekin batera bizi zen)...

Baina goian aipatutako arrazoiengatik, bere egiturari, eta baita funtzioari dagokionez, elementuen banaketan ere pairatu izan ditu eraldaketak, eta dudarik gabe, inguruko paisaia eraldaketekin eta aldaketa sozio-ekonomikoen batera, hauek derrigortu zituen Nabarnizko nekazariak, euren baserriak egoera berrietara moldatzera. XVII. mendean gertatu zen moduan, presio demografikoak derrigortu zuenean populazio gehigarria beste baserri batzuetara errentadore legez joaten eta horregatik hasi zen, lehenago egin ez zen, etxebizitza biko baserri-etxeak egiten. Egitura aldetik, aurreko eraikin bakanduetatik aldaketa bakarra, tamainaz gain, baserria erdi bi, luzetara eta batzuetan zeharka banatzen zuen horma bat eraikitzea izan zen, gaur egun ere ikusi daitekeen legez baserri askotan.

Orokorrean Euskal Herriko baserri guztiak antzeko ezaugarriak izan arren, guztiak baitira beharrian antzekoen aurrean gizakiak emandako erantzun arkitektonikoak, tankera ikuspuntutik matizazioak jarri ditzaie eta ez eskualde ezberdinen artean bakarrik, baita elkarren ondoko haranen artean ere. Nabarnizen, gero azalduko den legez, eraiki zen baserri mota bat Illuntzar mendiaren aldapetako (bertan dago baserri multzo gehiengo) espezifikotzat hartu dena da. Ezberdintasun hau argitzen da baserrien eraikuntza elementuei erreparatuz, neurri handi baten baldintza orografikoek eta klimatikoek baserri-etxea non eraiki mugatzen baitute.

Nabarnizko udalerrian kokatzen diren baserriak orokorrean, Bizkaia Nuklearra deitutako aldean nagusi den tipologiari jarraitzen diete, hau da oinplano laukizuzena duen etxea, patio barik eta atxekitako eraikin gabe, solairu bi eta ganbara; gainaldea, isurialde bikoia, teila okerrak edo abar-kilatua dituela; honek, ataundi karakteristikoarekin, ematen dio euskal baserriari, eta behar diran distantziak ahaztu gabe, beste lurralde batzue-

tako gizakiak eraiki zituzten etxeen antza, Juran (Suiza) daudenen antza, adibidez. Hau logikoa da kontuan hartzen bada gizakiak bere etxebizitza egiten duenean mugatzen dutelako ahalik eta egokien moldatzera derri-gortuta egoten dela, eta kasu honetan, argi dago inguruan euriak, elurak eta haize indartsuak sarriak zirela.

Dena dela, herri kulturaren manifestazio artistikoak, kasu honetan baserria, ez ziren inoiz egon kanon artistiko edo une bakoitzeko modatik kanpo, egia izan arren baserritarrak inguruak ekartzen zituen arazoei eta elementu klimatikoari aurkitutako soluzioak oso ezberdinak izan zirela. Hala, baserrien kokapena lerro baten eta aldapa erdian eta lautadetan, ipar haizegatik ezkutuan mendiari esker, eta gehien ematen den irtenbide bat, elizate honetako klimaren aurrean, atzealdeko teilatuaren profil aerodinamikoa, “miru-buztan” itxura emanaz.

Bistakoa da baserriaren ezaugarri nabarmenak baldintzatuta egon zirela eta daudela gizakiak bere inguruan aurkitu ditzakeen materialetara. Zentzu honetan, Ereño eta Arteagako harrobietako marmol gorria, eraikuntza hauen beste material tipikoez gain, iraunkortasun nahikoz erabili izan da Gernika-alde osoko baserri askotan.

Baserriak eraikitzeke erabilitako egitura eta materialak faktore batzuen pean egon ziren, besteak beste basoen atzerakada, haziera demografiko eten gabekoaren mendean; faktore horien guztien eraginez, baserriaren tipologian aldaketa batzuk suertatu ziran nahiz eta gaur egun bakar batzuek baino ez duten kontserbatzen haien hasierako eraikinen ezaugarriak.

.Egurrezko egitura duen baserria

Zaila da baserrien sorrera aztertzea zuzeneko erreferentzia dokumental barik, baina txabola izan daiteke aurreko hurrena; bizileku hauetan batera bizi ziren ganadua eta gizakiak.

Zehatzago, baserri hauen sorburua artzainak mendian ganaduak gordetzeko erabiltzen zituzten bordatan aurkitu behar da; hauen oinarritzko egitamu eta altxaerak geroko baserriena gogoratzen du, nahiz eta Bizkaian haien aztarnarik ez artatu. Gero, higiene eta erosotasun arazoak direla eta, baserria, oinean, zona ezberdin bi mugatuz joango zan, poli-

ki-poliki atzealdean ganadua ezarriaz, azken baten goiko pisu bat egin arte lastategi funtzioarekin eta noiz-behinkako gela legez erabiltzeko.

Baserriari buruz aurkitzen den lehen aipamen idatzia 1285ekoa da eta Bermeori bere jurisdikzioaren mugak zabaltzeko baimena ematen dion gutunean dago; hemen aitutzen dira “las caserías de los fijos de Don Sancho de Galdakao”, gaur existitzen diren Nafarrola eta Antxonarako baserrien beste toponimo batzuekin batera.

Lehen aro honetan, gutxi gora-behera Errege Katolikoaren erregealdira arte, baserria eraikitzeke erabili ziren eraikuntza material gehienak, egurren lehenik eta harria eta teila bigarrenik izan ziren.

XVI. mendean, oraindik egurren izan arren eraikin hauetan gehien erabiltzen zen materiala, harria apur-apurka gehiagora joan zen. Biztanlego sakabanatu dun Bizkaia Nuklearrean, Nabarnizen, orduan sortu zen etxe tipologia, karrerape dun baserria izan zen, harrizko aldamenak zituela eta atartearen erdialdea egurrezkoa zelarik oso-osoan. Egurren luzaroan izan zen material garrantzitsuenak.

XVI. mendearen hasieran baserri guztiek ez zuten baserri bat egiteko ahalmena; gehienek, aro horretan, eraikuntza kalitate oso urria zuten eraikinetan bizi ziren; hurrengo mendean lortzen da, artoaren lantzea hasi eta zabaltzen denean, nekazarien egoera ekonomiko hobeto bati esker, “democratización de la casa de labranza”.

Baserri gehienak askotan eraldatu dira mendeen joan-etorrian, aurrealde, fatxada izanik orokorrean zentzu honetan gehien zaindu dena; denborarekin eraikinaren goialde guztia betetzen zuen oholezko itxituren ordez, beste material batzuk erabiltzen hasi ziren, lehenengo oso arinak eta gero, XVIII. mendea ezker, mamitsuagoak, euskarriak ere gero eta hobeak eta sendoagoak baitziren. Horren adibide da Ereñoko Zeas auzoan kokatzen den, Ziene baserria.

Egurren ordez beste material batzuk sartzeko prozesua, egurren baserriaren hezurdura osatzen duten egitura baztertuta izan zan, XV. edo XVI. mendeetarantz hasi zen gutxi gora-behera; aro honetan egin ziren praktikoki gaur itxura hartzen duten baserriak, beraien barneko egitura landu gabeko harrizko harroin gainean sostengatutako haritzeko habe indartsuekin egina dago; harroin horiek, zuzenean arroka gainean jartzen ziren, ezelako zimendurik barik. Goiko solairuan zeharkako habeak

eusten die eta hobekien arkupea definitzen duena ikusten da. Kanpotik hormak estaltzen du egitura eta haizeen indarrei eusten dion atzekoa da indartsuena eta lodiena; alboko hormak lehenengo solairuraino iristen dira eta hortik gora, horma estaldu egiten da harri arrabotekin edo egurrezko bilbeekin (trama). Fatxada nagusia sistematikoki hiru hormarte ezberdinetan antolatzen da, eta zatiketa, tokibanatua lau zutoinez berrinatuta agertzen da, bi aldamenetan eta beste bi arkupearen alde bietara. Zutoin hauek estalita ageri dira, izan ere, beheko solairuko alboetako harlangaitzezko horma lodiak kanpora irteten dira. Gehienetan goiko solairua zutoiaren koadrikula gainean jositako ohol bertikalekin estaltzen da eta horrela aurrealdea zeharo itxita geratzen da, paneletan marketeria lan txukun batekin ebakitako bao txiki batzuetan izan ezik.

Oso zaila da garai honetako baserriaren bat zutik aurkitzea, honelako egitura osorik mantentzen duenik, konponketak pairatu dituztelako. Dena dela, baserrietako batzuek, jatorrizko sarrera eta leihoak mantendu dituzte, gehienetan kortetako alboko edo atzeko sarrerak, izan ere, ganadua egoten den baserriaren alde honekiko ardura gutxiago izaten zuten jabeek; elementu hauen ojiba edo erdi puntuko formak bidaltzen gaituzte hurrenez hurren estilo gotikora edo errenazentistara; XVI. mendean indarrean zeuden estiloak legez, aro horretan datatzea posible egiten dute.

Suposa daiteke, sasoi batean Ikazuriaga moduko (Ikazurieta auzunea, Nabarniz) baserriak izan zituztela aurrean azaldutako ezaugarriak, baserri horrek kontserbatzen dituelako arku gotiko bat arkupearen ondoan; berdin gertatuko zan Urtza (Merika auzunea, Nabarniz) baserriarekin, eraikin harrigarri handia ustez XVI. mendearen lehen erdia baino lehenago eraikia izateko. Arkupean, koloma errenazentista baten gainean eusten den habe lodiko ateburua duen baserría da, udalerrí honetan kontserbatzen den zaharrenetakoa. Egurrezko bilbea, urdinez margotua, goialdean baino ez dago eta egurrezko alderik aldeko balkoi bat gainean duen tarte horizontal batek zeharkatzen duen tarte bertikalez konformatua dago; alboetan bao batzuk zabaltzen dira, alderik aldeko balkoiarekin. Egun baserri honek itxura eskasa du.

Aipatutako ojiba-arku eta arku konopialak, XVI. mendekotzat hartzen dira, hiriko egoitza-arkitekturan kanon gotikoak indarrean zeuden eta haien eragina baserriar komunitateetara heldu zen, zaila da estilo hori eta errenazentistaren arteko aldea ezartzea baina estiloari dagokionez ze-

haztapan batzuk egin daitezke (arku zorrotza erabili beharrean erdizirkularra erabiltzen hasi zan) eta ondorioz, kronologian nola edo hala koka daitezke, azal azaletik bada ere; baina egitura osoaren artapen-egoera dala eta, kasu hauetan, ez dago baserriarik, Nabarnizen, Ikazuriaga baserrian gertatzen zen legez, sarrera nagusirik zaindu duenik, atzekoa edo albokoa bai, hori ikusgai daukagu udaleko baserri bitan, Atarren eta Mendozenan.

Atarren baserriaren fatxadak XVIII. Mendekoa dirudi egurrezko habe batek eusten dio atarteari; hegoaldeko hastialean hiru murruarteka eta erdi-puntuko sarrera dobela dun bat ditu; elementu hauen bitartez esan daiteke, fabrika gotikotik errenazimendura ematen den trantsizioari dagokiola.

Madozena baserriak ere artatu du doberarriekin eratutako arku erdibiribila, nahiz eta aurreko etxebizitzaren gainean berregina izan. Izan ere XIX. Mendean, Iluntzarren aldapetan dauden baserri askok bereganatu zuten herriko ohiturari jarraituz, aurrerago ikusiko den legez, fatxadaren erdialdean harlanduak jarri ziren bertan balkoien bat sartzeko.

XVII. mende osoan, zutoin-egitura ereduak jarraituko du, nahiz eta, faktore ezberdin batzuen eskutik berrikuntzak sartuko diren: mende honetan fatxada tankera berri bat garatu zen, alboetako gorputzak atzeratu egin ziren eta baita erdikoak ere; horma armazoizko zutoinen artean hedatuko da, eta ate-zangoarena ere egiten du eta inoiz eraikinaren kantonomendu legez ere agertzen da.

Eraikin hauetako hormen behealdea harrizkoa da; goialdeak osterá, adreilu eta morterozkoak dira bilbadura, egurrezkoa. Egurrezko bilbadurari eusteko, teilatutik lurreraino doazen egurrezko zutoiak agertzen dira.

Fatxada nagusian egurrezko zutabeak agerian dituen baserri-eredua elizate honetan zabaldu zen eta indarrean jarraitu zuen XVIII. Mendera arte; aro honetan zehar eraikin altuagoak egiten hasi ziren, goialdeko bizitokia handitzeko, ordura arte eremu hori lastoa eta beste labore batzuk gordetzeko ganbara baitzen. Esan daiteke XVII. Mendea ezkerreko baserriaren eraikuntza “demokratizatu” egin zela, artoaren sarrerak eta zabalerak ekarritako hobekuntza ekonomikoer eskertu, bizilagun gehienek esku bait zegoen. Hain zuzen ere, harrezkerreko honelako baserri mota Bizkaiko baserriar munduko etxebizitza eredu bihurtu zen, bai baserriar ahaltsuenen artean, bai apalen artean; dena dela, baliabide askorik bako

baserritarren kasuan, baserriak garapen bertikal urriagoa zuten, material eta aparailu pobregoeekin egiten ziren, oinplano txikiago eta aberatsen baserrietan agertzen ziren elementu arkitektoniko kultu barik. Honako asko artatu dira eta horrek esan nahi du nekazari gehienak baserría landa-etxebizitza legez onartu dutela.

Kontsiderazio hauetatik aparte, baserriaren egitura arkitektonikoan garrantzia duen berrikuntza bat sartu zen, eta horri esker baserriaren garaia ezagutu daiteke: fatxadak, eraikinaren data eta batzuetan egin zuten jabeen izena plakaxo batean jartzeko ohitura, Ereñoko Bollar auzuneko Idoiaga baserrian ikusi daitekeen moduan. “1682 IDOIAGA GOIKOA 1982”.

Baserriak izan zuen demokratizaziora berriro bueltatuz, kontutan hartu behar da, gertaera honek elizate hauetako errekurtsio ekonomiko eskaseko nekazari gehienei mesede egin arren, eraikinen kalitatearen kalterako ere izan zela, gehienbat materialei dagokienez; aurreko mendeekin alderatuta utziz joan ziren uztardura sarrerak eta zubiak eta zutoiak eratzen zituzten tantaiak indarra galduz joan ziren. Horren zergatia, alde batetik, nahiko aurrera eramanda zegoen basoak botatzeko prozeduratik dator; kalitatezko egurra lortzea zailagoa zen eta gainera, kontutan izanik honako eraikuntza batek egur asko behar duela, ulertzekoa da XVII. mendea ezker material berriekin, adreilua eta burdinoleta zepekin, esperimentatzen hastea. Horrela sortu ziren zurezko sare egitura erakusten zuten fatxadak, batzuetan kuadríkula erregularizatu handi batean, ia bao barik, habe, zutabe bi eta tramoi sistema konplexu batekin.

Nabarnizko nekazarien artean, eta orokorrean Gernika aldekoen artean, egitura honek onespén nahiko handia izan zuen, eta mendean zehar baserriek birgaitzeak jasan arren, jabe askok errespetatu egin dute sorrerako egitura, ondokoetan legez: Martikone, Zarragoiko edo Gabikaetxebarria Ereñon eta Mendigune, Hormaetxe edo Aldekoa Nabarnizen; azken baserri bi hauetan armazoia landu bako zutoinez eginda dago eta arkitektura kultoaren ezaugarriak dituzte, familiaren armarria esaterako; beste alde batetik, arkupeari eusten dien harrizko kolomak, herri-arkitekturan ohikoak dira. Zarragoiko (Akorda auzunea / Ereño) eta Ziene (Gabika Ereño) baserriak, bereziak dira betetako erabilitako harlangaitzen materialen pobretasunagatik, baita, hiruak sostengatzen diren arkupeak egurrezkoak direlako eta kanporako bao askorik ez dagoelako; baina herri

arkitekturaren ezaugarri dira, aldiz, 1975ean ospatu zen baserri txapelketen lehen saria irabazi zuen Martikone (Bollar auzunea / Ereño) eta Gabikaetxebarria (Gabika): arkupeko dintelari sostengatzen dion haritzeko zutikoa dekoratuta dago motibo geometriko; baserri biak emokaturik daude eta haritzeko egitura bistan dute, XVI. mendearen erditik XVI-II. azken era arte eraikitako eraikuntzetan ohitura zen moduan. Zehatz esateko, bigarren eraikina bilakaera prozesuaren erdiko aldiari dagokio, horregatik dago aurrekoetan baino bao gehiago eta horregatik goialdean, alderik alde, egurrezko balkoiak fatxada osoa hartzen du. Mendiguna (Merika auzunean / Nabarniz) baserriak be agertzen du egurrezko egitura bertikala goiko gorputzean eta alderik aldeko balkoia, Martikonek legez.

XVIII. mendean, egurra ez zen izan oso material eskuragarria guztientzat aurreko mendeetan izan zen moduan, eta horrek material hau murriztea ekarri zuen baserrien eraikinaren egiturari, gehien baten kanpoaldean; apurka-apurka komunitate hauetako baserritarrak, muga hauen ondori legez, irtenbide berriak aurkitu beharko zituzten.

.Egurraren atzerakada baserriaren egiturari

XVIII. mendearen azken erantz etxebizitza berriko mota barri bat sortu zen, apurka-apurka egurra ezabatzen joan zen elementu sostengatzailer legez; baso-botatzea gehitu egin zen mende honetan eta hurrengoan larriagotu, kalitatezko zuraren urritasun gero eta handiagoan egon zen prozesu horren zergatia. Batetik arotziako teknikak gainbehera egiten dute eta bestetik egurrezko baserriek hauskorak dira, bada, horren guztia onduz, eraikuntza osoaren sostengu sistemari egurraren ordez, harria duen baserri eredu nagusitzen hasi zen. Familia aberatsenak erabili zuten sistema hau XVI. mendearen azken aldia ezker eta baita elementu kultuaren bitartez egindako dekorazioa, medailoiak, armarriak... Modelo hauek sendotasunean irabazten dute eta sarritan obraren kalitate artistikoa ere nabaria da eta gainera egiterako orduan arazo tekniko gutxi planteatzen dituzte. Goiko solairuaren bizitzeko egokitasuna ere asko hobetzen da gelen sabaia altuagoak egiterakoan eta arkupearen gainean balkoi txikiak kokatzea errazago suertatzen da.

Hau gertatu zenean aurreko fatxadako zutoinak kendu ziren; beheko

solairuan lehen jartzen zen egur guztiaren ordez harlanduak erabili ziren eta horrela beheko solairua itxita gelditzen da harlangaitz indartutako mihise lodi batekin eta honen gainean sostengatzen da fatxada eta gainaldea, orain, eraikinen pisua perimetro guztira deskargatzen da eta ez lau zutoinetara. Fatxadan gelditzen den habe bakarra atearena da, hau arkupearen ate-zangoetan harburuen gainean eskoratuz eta batzuetan zutiko baten edo koloma baten laguntzaz agertzen da. Goiko solairuan aurrez erabili zen adreilu egosiz betetako zutoinak fabrikaren ohiko itxura mantentzen du. Esan den guztia dela eta, egiaztatu daiteke artean ere eraikinak ahalik eta itxien egiten saiatzen zirela, batzuetan zurkaitza jartzen zela oraindik baina balkoi eza oraindik nagusi zela.

Mendearen hasiera ezkerreko alboko hormetan harlangaitza jartzen hasi zen teilaturaino, egurra ezabatzeko esandako joeraren ondorio legez, baina inprentaren gaineko alde oraindik zutoin bidez prestatu behar zen hark pisu handiagoari eutsi zekiolarako; fase hau aro oso berandukoari dagokio eta XIX. mendearen azken arte iraungo zuen eta horrekin eraikuntzaren garapen handiago bat lortu zen, gorantza behinik behin, hiru solairu arte. Horren lekuko dugu Gabikako Arroategi baserría; egitura osoa kalitate oneko harlangaitzekoa da eta solairu bi ditu, Ereñoko marmolarekin egindako toskanar tankerako koloma klasiko baten sostengatzen da dinteldun arkupea eta arkupearen goialdea, egurrezko balkoi bi daude, bata bestearen gainean; ezaugarri hau ugaria izango da hemendik aurrera baserriak eraikitzen dituzten artean.

Mende honetan, hain zuzen ere, garatu zen Iluntzar mendiaren ekialdeko aldapan, eta Nabarnizko udaletan, deskribatu den bertako ereduaren bariante; erdiko gorputza ahulagoa, atzeratu egiten da fatxadaren erdialdean eta alboetako blokeen artean libre gelditzen den tartean bata bestearen gainean balkoi paralelo bi sartzen dira; azken batean, baserriak garaieran irabazten du eta estutu egiten da oinean. Esandako egitura duten kalitate oneneko aleen artean izendatu ditzakegu Zendagorta eta Aurreko (Baseteas auzunea) Ereñon eta Nabarnizen osterá Intxaurreta Ibarguen (biak Intxaurreta auzunean) eta Jauregi (Elexalde auzunean).

Denak dira bizitza biko oin plano sakoneko baserriak eta forma aldetik, baserri guztientzat azaldu ditugun ezaugarrien barnean aurkitzen dira nahiz eta egiturari dagokionez, eraikuntzan harriak eskaintzen dituen aukera berriei esker, multzoaren bertikalitasuna da nabari eta baita ele-

mentuen kokapenaren simetria.

Baserri hauek emokatuta dituzte fatxada bazterrak bornatzen dituzten eta bistara dauden eskantzuetan eta leihoetan izan ezik. Esan den moduan, baserri hauek kalitate arkitektoniko nahiko ona dute baina arruntena modelo hau baserri pobreenetan eta txarren eregitakoetan erabilia izan zen XVIII. mendearen azken urteetatik hasi eta XIX. Mende osoan, berandu garatutako eta eskuragarritasun natural zailletako auzune batzuetako baserrietan.

Aro berean, etxebizitza herrikoiak arkitektura kultuaren eraikuntza elementu bat eskuratu zuen, arkuak. Mota askotako arkuak daude, eskartzia-rra, karpanel-arkua edo erdi-puntuko. XVIII. mendearen erditik aurrera, harria elementu sostengatzaile legez erabiltzen hasteari esker, arkuak jartzen hasi ziren baserrietan. Horri esker, zati handia estali ahal izan zen, eta ordura arte bilbatura osatzen zuten adreilu, egur, zepa eta bestelako materialak alde batera utzi ahal izan ziren; aurrerantzean lau fatxadak izango dira harrizkoak, homogeenak, leunak eta garaiera handiagodunak; harlanduak leihoen markoak, eskantzuak eta inposta lako egiturako elementuak azpimarratzeko erabili ziren eta harlangaitz emokatua itxitura mihi-setan. Aldaketa guzti hauekin solairu bat gehiago altxatzea posible zen, baita, nahi beste bako eraikitzea. Honako baserriak barroko-barrokoak dira; zaharrenak XVII. mendearen azken garaitakoak dira eta gehien bat, baserriar aristokraziak egindakoak, baina euren benetako gorakada ez zen etorri XIX. mendearen bigarren erdialdera arte eta batzuetan XX. mendera arte luzatzen da. Ybarra baserría, Lekerika (Nabarniz) auzunean kokatua, onenetakoa da; 1976an baserri onenaren saria hartu zuen, nahiz eta gaur ezkerreko alde nahiko narriatuta egon, itxura eskasa du; beste erdiak osterá, artapen egoera oso ona erakusten du. Familia bi bizi diren baserri honek hiru solairu ditu eta fatxada osorik emokatuta dago, hortik oso erregularri banatzen diren eskantzuetan eta bakoetako ertzetan izan ezik; atarterako sarrerara ematen duen karpanel-arku ederraren gainean solairu bi, bakoitza bere atarekin, bata bestearen gainean doaz, eta, bigarrenak bakarrik eduki arren balkoia, suposatzen da behekoa kendu egingo zutela arrazoiren batengatik, beste baserri askotan gertatu den moduan.

Mota honetako baserriek, atarteak arku-karpanel edo erdi-puntuko konformatzen du XVIII. mendearen amaieratik zehar ia XIX. Mendea amaitu arte nagusi izan zen sarrera mota, elizate honetan inplikazio han-



dia izan zuen eta batzuetan XX. Endera arte luzatu zen; adibidez Urrutibeko (Bollar auzunea/Ereño) baserría bertako jabeek berregin zuten 1902an erre eta gero, eraikin honen ohizko kanonak gordeta eta bere ezaugarriak lehen aitaturako arku karpanel-dun baserrien antzekoak dira, hau da, simetria, bertikalitasuna eta sendotasuna.

Baina XIX. Mendearen erditik aurrera ez dira egingo lehengo lako baserriak; arkudun baserriak gorengo maila hartuko dute; hau erlazioan behar da batik bat nekazal abeltzain jarduerak garrantzia galdu duelako eta horrenbestez espazio handi bat hutsik geratu izan delako. Hala ere galerarik handiena atartearena da, geroago esango den moduan, eraikin honen kanpoko itxura aldatzen baitu.

#### .Arkupearen galera baserrian

Baserriaren bilakaerarekin amaitzeko arku baserriaren egitura arkitektonikoan sartu zenean lortutako heldutasunaren ostean, Santanak “neoklasiko” deitu zion eredurantz jo zuela baserriak ez eraikinean greko-latindar elementuak sartzen dituelako, orain kriterio arrazionalagotan oinarritzen dalako baino hau da, ordena gehiago, proportzioa, ornamentua, baserriaren eraikinaren elementuen duintasuna edo garbitasuna; horrela bada, garrantzitsuagoa da egoitza lantokia baino eta horrek berarekin ekarri zuen arte bereizgarriaren desagertzea, haren ordeaz ate ateburuko estu bat ipiniaz, eta kasu gehienetan fatxada uri-etxeen birlantze bat da, horregatik baoak, denak berdinak, hiru ardatz bertikaleko eta hiru erregistro horizontaleko karteziar koadrikula baten antolatzen dira normalean; simetria-lerro zentrala nabarmentzen dute sarrerako ateak eta egongelako balkoiak. Fabrika dena egingo da harlangaitz emokatuaz, egitura-lerroa izan ezik, hemen harlandu bornatuak daude eta agirian zeharo bornatuak barrez, inguru honetan ohitura den legez.

Orokorrean tipologia hau, kasu bakoitzak dakarren aldaera logikoarekin, XIX. mendea ezkerreko eta XX. mendean zehar Ereño eta Nabarnizko auzune garrantzitsuetan, parrokiaren inguruan, egin ziren oinplano berriko etxe askotan onartu zen; testigantzek hala erakusten dute. Parrokia hauek leku urruti eta despulatuetan zeudenak, baina oraintsu egingakoak, gehienak, urietako eraikin batzuk gogorarazten dituzte, nahiz eta hauek baino txikiagoak izan.

Nabarnizen, Elexalde auzunean aurkitzen diren etxeak zein datetakoak diren jakiteko kartela daukate, eta aitatu ditugun ezaugarriak jarraitzen diete, besteak beste, Errasti etxeak (Elexalde auzunea); honen itxurak orain arte deskribatutako oinarri sakondun tipikoa gogoratzen du, baina kasu honetan arte barik; fatxada konformatzen duten elementuek hiru altueretan antolatzen dira; beheko solairua harlangaitzez egin da, baina goiko biak kalitate oneko kareharriz eta ertz ate-zangoak harlanduaz gogortuak.

Baina eraikuntza hauek ez zioten aurreko mendeetan eraikitako ohiko baserriek erantzuten zieten beharriari erantzuten, eta, kontsideratu daiteke XIX. mendearen erdia ezkerreko praktikan “baserriaren prozesu bitala” itxita gelditu zela eta ikusi den legez ohiko baserri- etxeak egiten jarraitu arren, ez da jadanik bizirik baserriaren kultura bat ekintza honek planteatutako arazoei konponbide propioak emateko gauza denik. Hau alde batera utzita, ohitura batzuk, mende honetako manifestazio propio guztietan agertzen direnak, materialen eta formen estereotipazioerako joera agertu zen: uniformizazioa esparru guztietan marko nazional guztien ginetik, eta horrela etxe bat eraikitzea, giza-komunitate baten eta bere ingurugiroaren erlazio partikularren adierazpen legez, desagertuaz doa gutxi-gutxika.

#### .Baserriari etxekitako eraikinak. garaia edo garaixea

Baserriari atxekitako eraikinak, errota eta garaiak batez ere, mamitsu erlazioan daude Nabarnizko bizilagunen ekintza ekonomiko nagusiekin, nekazaritzarekin hain zuzen ere; lehenengoak garaua ehotzeko betebeharra egiten dute, garaua giza-kontsumorako gertatuaz, eta bigarrenak baserriko bizilagunen kontsumo beharriari eta hamarrenak eta primiziak ordaintzeko, batu den uzta gordetako betebeharra.

Gaur Nabarnizen artatzen den bakarra Goikolaokoa (Elexalde auzunean) da. Egitura gehiena kontserbatzen duen azken errota honen jabeak dio, argindar barik gelditzen direnean baino ez dela erabiltzen. Oraindik aurreko denboratan Zubieta familiarena izan zan errota honetan ikusi daiteke egurrez eginiko eraikuntzaren jatorrizko egitura eta baita Horma errekatxotik datorren ura kanalizatuarekin egindako presa apala, maki-neriari eragiteko ura bilatzeko.

Garaiei dagokienez, sasoi batean beharrezkoa zen Nabarniz lako baserri-tar komunitate baten, uzta sasoiaren lortutako laborearen urte osoan gordetze-ko ezinbestekoak ziren. Pasa diren mendeetan, *garaixek* elizate hauetako paisaiaren elementu oso garrantzitsu bat izango ziren baserriaren atal laguntzaile legez. Dena dela, gaur ezin daiteke imajinatu *garaixek*, mendeetan ekoizpen-unitate autonomo izan ziren gariak izan zituzten garrantzia baserrian, hau bere osotasunean hartuta; ezin da imajinatu garaiaren garrantzia zenbaterainokoa zen biztanlegoa sakabanatua bizi zen alde honetan, gaur gutxi baitira sorrerako egiturarekin zutunik geratzen diren garaiak; zehatz esateko, elizate honen inguruan ez da garai osorik artatu, nahiz eta *garaixen* egiturako elementuren bat edo beste atzeman baserrien ondoko eraikin batzuetan; zentzu honetan, gaur Euskal Herrian zutunik dagoen zaharrena Ybarguen (Intxaurraga auzunea/Nabarniz) baserriaren aurrean dagoen garaia da; kanpotik behintzat, aurreko mendeetan Nabarnizen garaia izango zuten itxuraren antzekoa artatu du.

Garai batetik aurrera komunitate landatar hauetan protagonismoa izan zuten garaien desagertze progresiboa eman zen. Hauen desagertze progresiboaren arrazoi funtsezko bat, artoaren etorrera eta hedatzea izan zen XVIII. mendea ezker, nahiz eta kontuan izan mende azkeneko nekazaritzako krisiak ere izango zuela garrantzia; guzti honek ekarri zuen baserri askoren inguruan zeuden garai batzuk alperrik galtzea. Kontsiderazio honetatik, huts egiteko beldur barik, atera daiteke ondorio legez, eraikin hauek bizi gehien izan zutela, XV. eta XVI. mendeetan, uzta garrantzitsuenak artoa eta artaxikia zirenean: eraikin hauek ahulak ziren, gehien-batean egurrezkoak, beraz, eguraldi gogorraren eraginez, arin narriatzen ziren eta hau sarritan gertatzen da Nabarniz eta inguruetan: esate baterako, 1815eko ekaitzarekin hori gertatuko zen edo mende honetan 1941ean herri honetan eragina izan zuen urakanarekin.

Bestalde, kontutan izan behar da, baserriaren ekonomiaren protagonismoa galdu ahala eta baserriek ekoizpen autonomo zelula izateari uzten dihonean, apurka-apurka, eranskin hauek euren zertarako galdu zutela eta, egitez, gaur posible da antzinako garaien aztarnak aurkitzeko garaien moduko eraikinetan edo tresnak gordetzeko txaboletan... gaur mugarte honetako baserrietan dauden beharrezkoen erantzukizuna eraikin hauek dira eta.

Garaiak Ereño eta Nabarnizen izan zuten, Euskal Herri umelaren ba-

rruan, zabalkunderik handienetakoa; garaien hedatze hori bizkaiera euskalkia hedatzen den azalera berean ematen da eta baita zelten eragin gehien eman zen inguru berean ere; eliza bi hauen inguruan zeltak egon zirela egiaztatuta gelditu zen, ikuspuntu arkeologikotik, arkeologiari buruzko atalean.

Eraikin hauetako asko galtzearen zergatia lotuta egon daiteke bertan erabilitako materialen ezaugarriak, eraikin multzoan egurra delako nagusi bai kanpotik eta bai barrutik, hasiera baten batez ere; gero, denborak aurrera egin ahala, baserriekin gertatu zen modua, harlangaitza gehiagora joan zen eraikuntza moduan; beste alde batetik, jabeak lantzen zituen lurak nolakoak ziren, halako tamaina izaten zuen, azken baten honek mugatzen zituelako artaxiki, gari edo arto uzta. Uzta hauek hezetasunetik eta karraskarietatik gordetzeko egiten ziren eraikin hauek zutoin gainean; zutoin horiek gehienetan piramide-enbor formakoak dira eta garau gordetzeko tokia, gehienetan laukizuzena, harri-diskotan oinarritzen da, elizate bi hauetan kareharriaz egiten ziren, ugaria alde honetan, gaur holako asko ikusi daiteke mahaietan, zizailuetan... baserri batzuen ondoan. Garai hauek altxatzen dituzten eustarriak, elizate hauetan bistan kontserbatzen direnekin, trapezoide formakoak dira eta kasu honetan ere kareharria da gehien erabilitako materiala.

Ikazuriaga baserrian ez da *garaixeen* arrastorik aurkitu.

*05. Baserria. Ikazuriaga.*



## IKAZURIAGA BASERRIA.

Ikazuriaga baserria Bizkaiko Nabarniz herrian kokatzen da, zehazki, Ikazuriaga auzunean.

Eskualdean aurkitzen den baserri zaharrenetako bat dela esan daiteke eta duen interes kultural eta arkitektonikoa dela eta honen ikerketa burutu da.



Ikazuriaga. Urdaibai.



Ikazuriaga. Ikazurieta.

Izen osoa Ikazuriaga-Etxeandia duen baserri hau, Nabarnizko Ikazurieta auzoa sortu zuen eraikuntza dela esan daiteke.

Bere jatorria Behe Erdi Aroan, edota Goi Erdi Aroan kokatu daiteke, baserriak duen izen eta kokapenagatik. Izan ere bereziki aukeratutako puntu batetan kokatzen da, kareharrizko azaleratzeak dituen goi-lautada lehor batean, hegoaldera orientatua eta iparretik ongi babestua, baita Iluntzar mendiaren bitartez ekialdeko haizeengatik babestua.

Ziur asko, egun baserriak hartzen duen kokapenean, edo bere inguru hurbilean, auzoari jatorria ematen dion etxola/txabola/borda primitiboa kokatuko zen. Esandako hau, ezin izango da ziurtatu, ikerketa arkeologiko bat egin ezean.

Txabola primitiboa, Erdi Aroan zehar, behin eta berriz zaharberritzen joan dela esan daiteke. Hori dela eta, induskatzen bada, zutabeetan metxinal eta zulo arrastoak aurkitu ahalko dira, zeinek, eraikinak jasandako eraldaketa faseak azalduko dituzten.

Txabola, XV. mendean desagertzen da, eta baserri batengatik ordezkatua izango da, euskal baserrien lehenengo belaunaldien adierazgarri den baserrietako batengatik.

Egun Baserrian ez da inor bizi, baina Ikazuriagatarrak lehortegi, biltegi eta ukulua erabiltzen jarraitzen dute.


Egitura nagusiaren egoera ona da baina espazio batzuetan, bigarren mailako egitura eta gehienbat akaberako egur lamak egoera okerragoa erakusten dute.

Ikazuriaga baserriak Bizkaitar baserrien ezaugarriak betetzen dituela esan daiteke. Garai ezberdinak pairatu izan dituela ere argi dago. Txabola izatetik, horma sendoak eraikiak izatera pasatutakoa, zurezko egitura ere badu beranduago eraikia, eta alemanen eraikuntzaren kutsua duena.

Gune ezberdinen berreraikitzeak sumatzen dira, eta ziurrenik piezen lekualdatzeak ere izango ditu nonbait.

Baserria bisitatuta - *Juan Pedro Ikazuriaga jaunari esker*- eta irisgarriak ziren puntuetara helduta, lehengo apunteak batu dira.

Neurketak gauzatzeko bisita gehiago egin dira eta azkenik, baserriaren egungo egoeraren dokumentazio grafikoa eratu da.



AZALERA TAULAK Hurrengoak dira baserriak dituen erabilera eta azalerak:

Eraikitako azalerak:

+1. Gehigarri biltegi: 56,5m<sup>2</sup>

+2. Ur depositua: 14m<sup>2</sup>

.Behe solairua:

Eraikitako azalerak: 223,5m<sup>2</sup>

Azalera erabilgarriak: 172,1m<sup>2</sup>

.Lehen solairua:

Eraikitako azalerak: 228,2m<sup>2</sup>

Azalera erabilgarriak: 187,5m<sup>2</sup>

.Estalkipeko solairua:

Eraikitako azalerak: 226,3m<sup>2</sup>

Azalera erabilgarriak: 95m<sup>2</sup>

Azalera erabilgarriak:

1. Atartea. 20,8m<sup>2</sup>

2. Atalondoa. 48,1m<sup>2</sup>

3. Ukuilua. 100,7m<sup>2</sup>

4. Eskailera 1. 2,5m<sup>2</sup>

Azalera erabilgarriak:

5. Eskailera 2. 2,1m<sup>2</sup>

6. Komunikazioa. 26,5m<sup>2</sup>

7. Gela biltegi. 11,8m<sup>2</sup>

8. Egongela. 22,7m<sup>2</sup>

9. Logela 1. 12,8m<sup>2</sup>

10. Logela 2. 12,5m<sup>2</sup>


11. Lastategia. 94,4m<sup>2</sup>

12. Balkoia 1. 4,7m<sup>2</sup>


Azalera erabilgarriak:

13. Ganbara. 92,2m<sup>2</sup>


14. Balkoia 2. 2,8m<sup>2</sup>




Sarrerako ebaketa.




Ukuiluko ebaketa.



Behe oina.




1. solairuko oina.




Estalkipeko oina

05 Baserria. Ikazuriaga.





Hegoekialdeko altxaera. E:1/100






3m - Hegoekialdeko altxaera. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baserria. Ikazuriaga.





Iparmendebaldeko altxaera. E:1/100




Iparmendebaldeko altxaera. <sup>\*</sup> Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baserria. Ikazuriaga.





Hegomendebaldeko altxaera. E:1/100




Hegomendebaldeko altxaera. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baseria. Ikazuriaga.




Iparekialdeko altxaera. E:1/100



Iparekialdeko altxaera. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baserria. Ikazuriaga.




Beha oina. E:1/100

056 Ikazuriaga baserriaren ikerketa.




1/3h/2 0'6m korreak. (bercz 0'80 m/ko korreak) ...


Baserria. Ikazuriaga. 05



- $Z_1 - Z_6$
- $h_1 - h_5$
- $e_1$
- $a_1 - a_4$
- $a_{s1} - a_{s5}$
- $l_1 - l_4$
- $t_1$
- $H_1 - H_8$




ztabeak 9- solainan.



\* habexka duak dimentsio berdinak? Ala ztabe apinekan sekzio handi- godunak?

Beha oina. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baserria. Ikazuriaga.




1. solairuko oina. E:1/100

058 Ikazuriaga baserriaren ikerketa.

IPARRERO ALTXAERA. LASTATEGIRAKO SARRERA -


Baserria. Ikazuriaga. 05



Erdiko ataldea  
bestek entramatzen.


1. solairuko oina. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baserria. Ikazuriaga.



060 Ikazuriaga baserriaren ikerketa.



Estalkipeko oina. E:1/100




• Zuntzera habekak? -----

Estalkipeko oina. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baseria. Ikazuriaga.





Zeharkako ebaketa 1. lerroa. E:1/100




Zeharkako ebaketa 1. lerroa. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baserria. Ikazuriaga.





Zeharkako ebaketa 2. lerroa. E:1/100






Zeharkako ebaketa 2. lerroa. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baseria. Ikazuriaga.





Zeharkako ebaketa 3. lerroa. E:1/100




Zeharkako ebaketa 3. lerroa. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baserria. Ikazuriaga.





Luzetarako ebaketa 1. ilara. E:1/100




Luzetarako ebaketa 1. ilara. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baserria. Ikazuriaga.





Luzetarako ebaketa 2. ilara. E:1/100




Luzetarako ebaketa 2. ilara. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

05 Baseria. Ikazuriaga.



Luzetarako ebaketa 3. ilara. E:1/100





Luzetarako ebaketa 3. ilara. Ikazuriaga baserriaren hasierako apunteak.

## IKAZURIAGA BASERRIA

Ikazurieta auzoan kokatzen den Ikazuriaga baserria eskualdeko komunikazio bide tradizionalaren ondoan kokatzen da. Gaur egun beste baserri batzuk inguratzen dute baina auzoko fundatzailea dela esan daiteke.

Oin laukizuzeneko baserria da, 13 metroko zabalera eta 17 metroko luzera hartzen dituelarik eta hiru solairuko garaiera. Hiru aldeko kareharrizko harri-horma lodiko hormaz eraikita daude. Fatxada nagusian berriz, material hori eta fatxada zuratuko hormalak nahasten dira. Hala ere, baserriaren sostengu-egitura arotzeriakoa da. Oinak, luzeran jarritako lau habeartetan eta zeharka jarritako beste hainbatetan antolatuta daude.

Ikazuriaga baserriaren aurrealdea material ezberdinez egina dago: beheko oineko hormetan bolo lodiko bistako harri-horma, eta goiko oinetako zurezko egitura-hormalak betetzeko argamasa edo harri-horma luzitua erabili dira. Orokorrean, ataripedun fatxada (gaur egun itxia) zuratuko egitura ederraz osatuta dago; bertan, egitura bertikala nabarmentzen da, zutabeak harrizko oinarrietako habetik teilatuperaino doaz armadurako petralak eusteko. Teilatu-hegaleko besoan motibo dentikulatuko tailatzeak ikus daitezke, eta mihiztadurak, buru poliedriko lodiko zur-zirien bidez finkatuta daude.

Baserriaren barrualdeko banaketan ikus daiteke aurrealdeko bi habeartek egoitza-funtzioa dutela, eta atzealdeko erdia ukuilu gisa erabiltzen dela, honek atalondoko sarreraz gain bere sarrera propioa ere badu. Atalondoak ia bigarren habearte osoa hartzen du, eta berau etxeko lantegi, banatoki, biltegi eta askak zaintzeko barnebidetako gisa erabiltzen da. Baserriko biztanleak ez dute inoiz izan sukalde bat eraikitzeko beharizanik,

edota beheko su bat. Ondorioz, zoru gainean sute irekia erabiltzen zuten.

Ukuiluaren gainean lastategia aurkitzen da, solairu bi hartzen dituelarik. Hona lehenengo solairutik iristeaz gain kanpoaldeko ate batetik ere iritsi daiteke. Lastategia eta aurrealdean kokatzen diren gelak, suhesi funtzioa betetzen duen egitura-hormatal baten bitartez banatuak ageri dira. Lehen oinean, fatxadaren pareko habeartean egongela aurkitzen da, eta honen alboetan berriz logelak. Multzo horretan, baserriko etxebizitzagiroa bilatzen da; bigarren habearte banatoki funtzioetarako uzten da. Habearte hauen gainean teilatupeko gela dago, aletegi, lehortegi eta ganbara gisa erabiltzen dena.

Ikazuriaga baserria etxola primitibo batetik etorri daitekeela esan daiteke baina XV. mendean desagertuz joango da eta baserri batean bilakatuz.

Gaur egun dagoen baserri honek hainbat aldaketa jasan dituela agerikoa da. Hori dela eta baserri honek pairatu ahal izan dituen aldaketak, fase ezberdinetan sailkatu dira, eraikuntza mota ezberdinak garaiekin lotuz. Hala ere, hipotesi ezberdinak egon daitezke.

XV. mendean, etxola izateari utzi eta baserriaren *lehenengo eraikuntza fasea* emango da. Fase hau XV-XI. mendeetan emango da.

Baserria eraikitzeko, Erdi Aroko aurrekarien kokapena erabiltzen da, non kareharrizko lur goraguneak azaleratzen diren. Bertan, zulo bat ber-marrazten da, lau angeluko oin handi bat, familia bakarreko neurridun baserria sartzeko. Proporzio horiek, gaur arte mantendu izan direla suposatzen da.

Eraikinak duen oin mota, harlanduen neurri, eta dituen arku zorrotz berantiarrengatik, esan daiteke XV. mende amaierako eraikina dela. Eraitsia eta berriro eraikia goiko solairua. Lehengo baserriak garai honetakoak dira, eta hortaz, lehengo belaunaldiko baserri bat dela esan daiteke.

Baserri hau, jatorrizko harkaitz biziaren gainean eraikia dago, hormak, apareju gotikokoak dira, 80cm inguruko zabalera, korta sarreran ikusi daitezkeenak. Hormak hiru oinetakoak dira, hiru oinetako zabalera duten hormak orri bikoitzkoak, gotikoko harlandukoak, harrobiko eraikuntza onekoak.

Egun, hormek 3 metrora arteko jarraitasuna baino ez dute agertzen, kortako atearren garaieraren altuerarekin bat eginez, gainontzekoak 1,5m 2m

ra arteko jarraitasuna agertzen dute. Altuera honek baserriaren lehenengo eraikuntza fasea adierazten du. Hortik gorako horma zatia suntsitua izan zela esan daiteke.

XVII. mendean, *bigarren eraikuntza fasea* ematen da, garai honetan zurezko egitura dun baserria eratzen da, honek goiaren armadura eusten du. Egitura ostikoekin indartzen da, hauek bereziak dira dituzten xehetasun kurbatuengatik eta loturetarako erabiltzen diren zurezko ziriengatik. Izan ere garai historiko zehatz baten adierazgarri dira aipatutako berezitasun hauek, zirien buruak, poliedrikoak dira, kuboideak, klasizistak. Gainera kuadroarekin, kanpo aurpegiarekin eta alakatutako ertzekin XVII. Mende hasieran kokatu daiteke.

XVIII. mendean, *hirugarren eraikuntza fasea* ematen da, Garai honetan eraikuntzak kalteak jasaten ditu, frantziarren konbentzio errepublikarren tropen inbasioagatik, suteak... Ondorioz, baserriak garai honetan kaltean jasan izan bazituen, beharbada zona batzuk berreraikiak izango ziren.

Hirugarren fase honetan, bizigarritasunarekin erlazionatutako aldaketak jasaten ditu eraikinak baina egiturari dagokionez, lehenengo fasean definitutakoa mantentzen da, altxaera eta ebaketak bigarren fasean definituak geratzen dira. Barne modulazioa, tarteko trenkadak, etarte egongela sorrera, eta honen inguruan bizkarrezur modura, gelen sorrera ematen da.

Sabaiko zutabeak kentzen dira gurdien joan-etorria ahalbidezko, horrela bedarra kargatzea erraztuz tarteko tumultu gabe. Zutabe hauek zubi ahul batzuegatik ordezkutzen dira, zeinak zutabe zentral batean eusten diren, aurreko sostenguaren lekuan. Lastategian, habe buru batzuen arrastoak geratzen dira.

Mende honen amaieran gehigarri batzuk agertzen dira, hiru pieza neoklasikoko dintel/ateburu faltsuko lastategirako sarrera (garaiko ezau-garri), banaketa hormak, asken antolaketa berria, zulo berrien irekiera eta balkoiak, guzti hauek, eraikina bizigarriagoa, domestikagoa izan zedin.

XX.mendean, *azken fasea* ematen da, Ikazuragatarrak baserrian bizitzeari uzten diotenean. Garai honetako elementu ugari aurki daitezke, esaterako, atarteko itxitura, irekiera berriak, kortako aska berriak adreilu eta hormigoizkoak. Ganaduari ura emateko sistemak, ura garraiatzeko eroanbideak, zolarriak...

.Lehenengo eraikuntza fasea XV.-XVI. mendeak  
Harrizko hormak 3m altu...harlanduzko ate, leiho...

.Bigarren eraikuntza fasea XVII. mendea  
Zurezko egitura, ziriak...

.Hirugarren eraikuntza fasea XVIII-XIX  
aldaketak lastategiko egituran, domestikagoa bilkatzen da baserria...

.Azken fasea XX. mendea  
Atartea desagertzen da, ukulluko askak adreilu eta hormigoizkoak...



Lehenengo eraikuntza fasea fatxada nagusian.

05 *Baserria. Ikazuriaga.*



Lehenengo eraikuntza fasea ukuiluko itxiturretan.



Lehenengo eraikuntza fasea ukuiluko itxiturretan.



Bigarren eraikuntza fasea fatxada nagusian.



Bigarren eraikuntza fasea zurezko egitura.

05 Baseria. Ikazuriaga.



Hirugarren eraikuntza fasea lastategiko egituran.



Hirugarren eraikuntza fasea lastategiko atekoburuan.



Laugarren fasea, ataripearen desagertzea.



Laugarren fasea, Hormigoia, leiho berriak, errefortzuak.

## ALTXAERA NAGUSIA

Ikazuriaga baserriak fatxada nagusi landu bat erakusten du eta elementu ugari ditu aztergai.

Altxaera hau hego-ekialdera orientatua dago eta baserriaren alde bizigarria ixteko funtzioa betetzen du. Ondorioz, sarrera nagusia hemen kokatzen da, baita jatorrian ataripea zena eta XX. mendez geroztik zarratua dagoen zementuzko itxitura (01.ird.). Laugarren fasean kokatu dena.

Baserriak dituen hiru solairuak itxitura honetan garbi islatzen dira:

Beheko solairuaren itxitura eta egitura harrizkoa dela, 80cm inguruko zabalerakoa, baserriko hormak hiru oinetakoak dira, hiru oinetako zabalera duten hormak orri bikoitzkoak, leihozango eta atezangoetan gotikoko harlanduduna, baita itxitura arteko lotura izkinetan ere, harrobiko eraikuntza onekoak dira pieza guzti hauek.

Lehenengo solairuan eta estalkipeko solairuan zurezko egitura nagusitzen da, itxitura hau bigarren fasean eraiki zelan antzeman daiteke. Zurezko elementu handiak erabili izan dira, zutabeek solairu biak hartzen dituzte, habeak aldiz pieza ezberdinen loturaz (03.ird. eta 04.ird.) konposatzen dira. Zurezko egitura elementu hauen arteko lotura mihiztaduraz edota zurezko ziriz (06.ird.) gauzatzen dira. Egitura hau hormatal bidez indartua dago, zurezko zutoin sare baten bitartez, hauen ibilbidea solairutik solairura artekoa delarik. Zutoinen artean harri-masa multzo luzituak osatzen du itxitura.

Bai lehenengo, baita estalkipeko solairuan kokatzen diren balkoiak (02.ird.) hirugarren fasean kokatu daitezke, izan ere, garai honetan baserriak bizigarriagoak bilakatu baitziren, nahiz eta jatorrizko egitura eta barne banaketa mantendu egin ziren. Baoak ere gehitu ziren.

Azken solairuan irekidura txikiak ere ikus daitezke, ganbara/lehor-lekuden heinean, aireztapenerako ezarriak. Solairu honetatik hauteman daitezke teilatu hegaleko besoen loturak, ziriak... baita estalki erremateko zuraren xehetasuna (05.ird.).



01. ird. Hegoekialdeko altxaera. Altxaera nagusia.



02. ird. Balkoiak.





03. ird. Habeen arteko lotura.



04. ird. Balakoiko xehetasuna.



06. ird. Altxaera nagusiko entramatua.



05. ird. Estalki hegaleko xehetasuna.



07. ird. Gapiarioen lotura ziria

## ALTXAERAK

Baserriaren gainerako hiru itxiturak harrizko horma sendoz eraikiak daude.

Eraikinak duen oin mota, harlanduen neurri, eta dituen arku zorrotz berantiarrak (14.ird.) bai alboko sarrera zein kortako leihoetako batean, esan daiteke XV-XVI. mendeko eraikina dela. Eraitsia eta berriro eraikia goiko solairua. Lehenengo baserriak garai honetakoak dira, eta hortaz, lehenago belaunaldiko baserrietako bat izan daiteke.

Hormak, apareju gotikokoak dira, 80cm inguruko zabalerakoak, korta sarreraren ikusi daitezkeenak. Egun, hormek 3 metrora arteko jarraitasuna baino ez dute agertzen, kortako atearen garaieraren altuerarekin bat eginez, gainontzekoak 1,5m 2m ra arteko jarraitasuna agertzen dute. Altuera honek baserriaren lehenengo eraikuntza fasea adierazten du. Hortik gorako horma zatia suntsitua izan zela esan daiteke, berrerabilia izan zedin galaraziz.

Alberto Santanak Baserria liburuan aipatzen du baserri zaharrenak kalitate handiko harlanduak edukitzen zituztela, baita harlanduzko ojiba-arkudun sarbide ate handiak. XVI. mende hasierako Legarre baserria adibidetzat jartzen duelarik.

Hain zuzen ere ipar-ekialdeko altxaeran ukuilurako sarrera ate bat ageri da, harlanduzko ojiba-arkuduna. Alde honetan biltegi moduan erabiltzen den solairu bakarreko gehigarria ere aurkitzen da (08.ird.).

Hego-mendebaldeko altxaeran (09.ird.) ur depositu bat gehitu zaio XX. mendean, estalkiko urak batzen dituen. Horrez gain maldan (11.ird.) kokatua dagoela nabaritzen da. Altxaera honetan kokatzen da aipaturiko harlandudun beste leiho bat, baserriaren lehenengo fasean eraikia (13.ird.).

Azkenik, Ipar-mendebaldeko altxaeran (10.ird.) lastategirako sarrera ate aurkitzen da, (12.ird.) hau, hirugarren fasean sailkatu daiteke XVIII. mendean eraikitako hiru pieza neoklasikoko dintel/ateburu faltsuko lastategirako sarrera, garaiko ezaugarri.



08. ird. Iparekialdeko altxaera.



09. ird. Hego-mendebaldeko altxaera.



10. ird. Ipar-mendebaldeko altxaera.



11. ird. Hegomendebaldeko altxaera maldan.



13. ird. Hegomendebaldeko leihoa.



12. ird. Lastategirako sarrera atea.



14. ird. Ukullurako sarrera atea.

## ATARTE-ATALONDOA

Altxaera nagusiko azken fasean eraikitako atea zeharkatuta, garai batean atartea zena aurkitzen da, espazio hau zolarriko harrizko piezak (15.ird.) mugatzen dute, baita zurezko egitura konposatzen duten zutabeek ere. Gaur egun, espazio guztia atalondo kontsideratzen da.

Espazio hau ixten duen egitura begiratuta, habeetan koskak ikusten (20. ird. eta 21.ird.) dira, tamaina berdinekoak eta distantzia erregular jakin batetara kokatuak. Horrek, garai batetan itxitura bat zegoela adierazten du.

Atalondoaren espazioa ukuilurako sarrera ematen duen barne banaketako itxiturak zarratzen du (16.ird.), zeinetan abereen asketan janaria jartzeko leihoak dituen.

Baserri hau, jatorrizko harkaitz biziaren gainean eraikia dago (17.ird.), hormak harkaitz horren gainean eraikiak daudela ikusten da, 80cm inguruko zabalerakoak.

Zurezko egiturak hiru lerrokatadura sortzen ditu eta lau habearte, erdiko zutabea (18.ird.) jatorrizkoa dela esan daiteke, bigarren fasekoa. Aldiz, honen alboetara kokatzen direnak (17.ird.) eta jatorrizko atartearen lerrokatadura jarraitzen dutenak, erakusten duten zuraren kolorea dela eta berriagoak direla ikusten da. Behe solairuko zutabe guztiek beraien harrizko oina dute.

Baserri honetan ez da sekula sukalderik egon, bertako biztanleak ez dute halako bat eraikitzeko beharizanik izan, ezta beheko su bat, tximiniarik ere ez dago. Baserri asko tximiniarik gabekoak ziren, su ireki batekin, baina orduko sukaldearen funtzioak betetzen zituen. Ikazuriagan, zoru gainean sute irekia erabiltzen zuten, aurreko bi hormarteak, habexkak, eta zura, (21.ird.) kedar beltz kristalizatuz beteak daude, ez du zikintzen kristal purua baita.

Esan daiteke, sute irekiari esker, zurezko egiturak babes bat lortu zuela, adibidez xilofagoek sortu ditzaketan patologien aurkako babes...



15. ird. Ataripeko zorua.



16. ird. Atalondoa.



17. ird. Atalondoan harkaitza.



18. ird. Atalondoko zutabea.



20. ird. Habean aurreko itxituren aztarnak.



19. ird. Atalondoa.



21. ird. Habean aurreko itxituren aztarnak.

## UKUILUA

Ukuiluak baserriaren behe oinaren erdia hartzen du, eta erdi lurperatua dago ipar-mendebalde eta hego-mendebaldeko altxaerei dagokienez (22.ird.).

Baserria tokiko maldara egokitua dago eta esan bezala, jatorrizko harkaitz biziaren gainean eraikia dago (23.ird.), hego-mendebaldeko itxituran ikusten den moduan, agerian dago aipatutako harkaitz bizia.

Atalondotik barne sarrera bat badu ere, ukuilurako sarrera nagusia ipar-ekialdeko altxaeratik gauzatzen da (24.ird.), hain zuzen baserriaren pieza bitxienetako bat den arku zorrotz berantiarreko harlanduzko atea, baserriaren eraikuntzaren lehenengo fasean kokatzen dena.

Urteak dira Ikazuriagatarrak baserri honetan bizitzeari utzi ziotela. Hala ere, jabeek ukuilua erabiltzen jarraitzen dute, bertan abereak daukate (25.ird.), goiko solairuak ere erabiltzen dituzte, lehor-leku eta lastategia batik bat.

Abereak euren jana duten gaur egungo askak, eta atalondotik ukuilua banatzeko erabiltzen den banaketa horma, berriki eraikiak dira, hormigoizkoak eta adreiluzkoak. Hortaz, elementu hauek, laugarren fasean kokatu dira.

Egun altzairuzko zutaberen bat baldin badago ere, ukuiluan jatorrizko zutabe bi aurkitzen dira. Biak zurezkoak ebaketa esanguratsudunak eta harrizko oinarriak.

Lehenengo zutabe (26.ird.) askez inguratua ageri da, eta bigarrena (26.ird.) ukuiluaren erdian. Zutabeak sendotasuna adierazten duten arren, gainerako egitura elementuak habexkak eta lastategiko oholtza denak, itxura ahulagoa erakusten dute.



22. ird. Ukuiluko egoera



23. ird. Ukuiluan harkaitza.



24. ird. Ukuiluko atea.



25. ird. Ukuiluko abere eta askak.



26. ird. Ukuilu sarrerako zutabea.



27. ird. Ukuiluko egitura

## 1. SOLAIRUA

Beheko solairuan kokatzen diren eskaileretatik lehenengo solairura iristen da (28.ird.).

Eskailera hau (29.ird.), atartetik irteten dena, zurezkoa eta baranda gabea, lehenengo fasekoa dela esan daiteke, pieza guztiek erakusten duten bizia, kokapena eta loturengatik. Dituen moldurak kalitatezko arotzeria adierazten duena.

Beheko solairutik iada sumatzen da sutearen kea goiko solairura ere iristen zela (30.ird.), izan ere eskailerak ez du aterik eta espazioak guztiz komunikatuak daude.

Lehenengo solairu honetan bizilekua finkatzen da, hasteko komunikazio gunea aurkitzen da, zeinetan lastategirako sarrera atea aurkitzen den, baita estalkipeko solairura iristeko eskailera ere eta biltegi moduko gelatxo bat.

Gainerako gelak fatxada nagusira ematen dute, erdian egongela (32.ird.) kokatzen da eta balkoira irteera du. Horrez gain, erdian kokatzen den egongela honek alde bakoitzera logela bana du eta logela horietako bakoitzak fatxadarako leiho bana.

Gaur egun gune guzti hau uzta lehortzeko edo eta gordetzeko erabiltzen da, ez da inor bizi. Lehenengo solairuko elementua bigarren fasean eraiki zirela esan daiteke, domestikotasuna ematen dioten elementuekin, balkoi, fatxadako irekidurak....

Solairu honetan banaketa itxitura ugari aurkitzen dira, espazioak ez baitira horren zabalak eta banatzaile elementuak zurezko zutabez eta harri txikiz, argamasaz osaturiko hormatal luzituz osatzen dira.

Aipatutako bigarren eskailera (33.ird.), ganbarara igotzen dena, lehenengo fasekoa da. Eskailera ahokatua egondakoa da, zurezko kutxa batean sartua, izan ere aurpegian zein gibelean, artekak ditu bertan mihiztatutako ohol piezak sartu ahal izateko.

Solairuko egitura guztia zurezkoa da, erdiko lerrokaduran zutabeak (34.ird.) ikusi daitezke entramatzuko hormetan.



28. ird. Zurezko entramatua barne banaketetan.



29. ird. Behe solairuko eskailera.



30. ird. Lehenengo solairua.





31. ird. Lehenengo solairutik beherako ibilbidea.



33. ird. Lehenengo solairutik gorako eskailera.



32. ird. Lehenengo solairua, egongela zena.



34. ird. Lehenengo solairuko egitura.

## LASTATEGIA

Lehenengo solairuko komunikazio gunetik, aipatutako zurezko ate bat (35.ird.) zeharkatuz, lastategia aurkitzen da.

Solairu biren altuera hartzen duen espazio zabala da eta ukuiluaren gainean kokatzen da.

Lehenengo solairuko atearen parean, beste ate bat ikusi daiteke (36.ird.), honek kanporako irteera/sarrera ahalbidetzen du. Modu honetan lastategira sartu beharrekoak, kanpoaldeko maldatik, zailtasun gabe eta eskailerak ekidinez burutu daitezke.

Ipar-ekialde eta hego-mendebaldeko itxiturei erreparatuz, zenbait habe buru (37.ird.) ikusten dira, hauek hormaren zabalera baino ez duten hartzen. Egun ez dute inolako funtziorik betetzen, baina hipotesi moduan, esan daiteke hasiera batean, lastategiaren espazio zabal hori altuera bitan banatua zegoela, eta gerora tarteko solairu hori eraistea erabaki zutela.

Lastategia espazio zabala eta barne banaketa itxitura gabea denez errez ikuskatu daiteke bertako zurezko egitura, baita estalkiko egitura petralduna ere, (38.ird.).

Ikusten den zurezko hormatal multzoa (40.ird.), lastategia eta bizitokia banatzen duen elementua da, su hesi modura.

Hirugarren fase batean sabaiko zutabeak kentzen direla suposatuz dezakegu gurdien joan-etorria ahalbidetzeko, horrela bedarra kargatzea erraztuz tarteko tumultu gabe. Zutabe hauek zubi ahul batzuegatik ordezkatzen dira, zeinak zutabe zentral batean (41.ird.) eusten diren, aurreko sostenguen lekuan.

Horrez gain, bistan ageri diren zutabeak (42.ird.) ostikoz edo besoz indartuak daude, mihiztaduraz eta zurezko ziriz lotuak. Zirien buruak, poliedrikoak dira, kuboideak, klasizistak.



35. ird. Lastategirako sarrera, 1.solairutik.



36. ird. Lastategitik kanporako irteera.



37. ird. Habe buruak lastategian.



38. ird. Lastategia 2 solairutan.



40. ird. Lastategi etabizitokiko banaketa horma.



41. ird. Lastategiko egitura elementu zentrala.



42. ird. Estalkia jasaten duen egitura.

## GANBARA - LEHORLEKU

Azken solairua lehenengo solairuko komunikazio gunean kokatzen den eskaileratik iristen da eta ganbara edo lehorleku funtzioa betetzen duen espazioa da.

Fatxada nagusian dagokion itxiturari erreparatuz (43.ird.), barnean gertatzen dena asmatu daiteke, izan ere leiho txiki ugari josita dagoen itxitura da. Zulo horien eta estalkitik sartzen den airearen bitartez uzta lehortzeko espazio aproposa sortzen da. Ez dago barne banaketarik, modu horretan aire korronteak bideratzen dira.

Aurkako itxitura, lastategitik banatzen duen zurezko hormatala da (44. ird.)su hesi funtzioa betetzen duena, gainerako espazio guztian zurezko egitura baino ez da ageri, hiru lerrokaduratan gailurra eta gapirioak eusten.

Zurezko egitura hau bigarren fasean kokatu daiteke, egitura besoekin indartzen da (45.ird.), hauek bereziak dira dituzten xehetasun kurbatuen-gatik eta loturetarako erabiltzen diren zurezko ziriengatik. Izan ere garai historiko zehatz baten adierazgarri dira aipatutako berezitasun hauek, ziri-rien buruak, poliedrikoak dira, kuboideak, klasizistak. Kanpo aurpegia dute eta alakatutako ertzak erakusten dituzte.

Estalkipeko espazio ireki honetan garbi ikusten dira jatorrizko zurezko elementuak (46.ird. eta 47.ird.), piezen luzapenen loturak, mihiztadurak eta lotzeko erabiltzen diren ziriak.



43. ird. Ganbaratik balkoirako irteera.



44. ird. Ganbarara iristeko eskailera.



45. ird. Ganbarako egitura mihiztadurekin



46. ird. Zurezko egitura elementuen arteko ziri bidezko lotura xehetasuna.



47. ird. Estalkia jasateko ganbarako egitura.



*06. Baserriak. Zierre - Ikazuriaga.*






## ZIERRE BASERRIA.

Zierre baserria Bizkaiko Kortezubi herrian kokatzen da, zehazki, Oma auzunean. Kortezubi Nabarniz herriaren ondoan kokatzen da.

Zierre baserriaren deskribapen orokorra landu ondoren Ikazuriaga eta Zierrereren alderaketa taulak osatu dira.



Zierre. Urdaibai.



Zierre. Oma.

### .Deskribapena

Oma auzoa eskualdeko komunikazio bide tradizionaletatik kanpo dagoen sakonunean metatutako baserri osatutako herrixka da. Haitzuloak sortzeko eta kareharrien azaleratzeak emateko lur karstiko aproposa da. Bertan erreketako urak lurperatu egiten dira, erliebeak eragozten dien itsasorako irteera bilatzeko.

Lur eta baliabide mugatuekin, baina landa aristokraten eta hirien presiorik gabe, Omarko bizilagunek mendeetan zehar euren etxeen jabetza libre eta autonomia komunitarioko maila altua mantentzea lortu dute.

Edozein motako nekazaritza eta abeltzaintza jarduera alde batera utzi eta noiz edo noiz bertan norbait bizi arren, Zierre, bailarako historiko fundatzaileetako eta aldaketa txikiak jasan dituen baserrietako bat da.

Ia planta karratuko etxea da, zabala baino pixka bat luzeagoa. Hiru aldeko kareharrizko harri-horma lodiko hormaz eraikita daude. Aurrealdeko fatxadaren berriz, material hori eta fatxada zuratuko hormatalak nahasten dira. Hala ere, baserriaren sostengu-egitura arotzeriakoa da, hau koadrikulan antolatzen da haritzeko pieza bakarrekotutabe handiz osatua. Oinak, luzeran jarritako lau habeartetan eta zeharka jarritako beste hainbatetan antolatuta daude.

Zierre baserriaren aurrealdea hainbat materialez egina dago: beheko oinako hormetan bolo lodiko bistako harri-horma, eta goiko oinetako egitura-hormatalak betetzeko adreilu trinkoa edo harri-horma zarpeatua erabili dituzte.

Orokorrean, ataripedun fatxada zuratuko egitura ederraz osatuta dago aurrealdea; bertan, egitura bertikala nabarmentzen da, pilareak harrizko oinarrietatik teilatuperaino doaz armaturako petralak eusteko. Zutabe hauei alboetatik, oinak eusten dituzten frontal horizontalak lotzen zaizkie. Oinarritzko sarea dama-joko taularen moduan antolatuta dago. Hala ere, egiturako zutabeak txarrantzatzen dituzten lau errezuma luzek koadrikulak gurutzatzen dituzte. Bizkarreko testan eta teilatu-hegaleko besoan motibo dentikulatuko tailatze ugari ikus daitezke, eta mihiztadurak, buru poliedriko lodiko zur-zirien bidez finkatuta daude.

Zierre baserriaren barrualdeko banaketan ikus daiteke aurrealdeko bi habeartek egoitza-funtzioa dutela, eta atzealdeko erdia abere-ukuilu gisa

erabiltzen dela. Ukuilua gaur egun bi oinetan banatuta dago, hasieran lehen oinean lastategia bazegoen ere.

Jatorrian baserriaren sarrerako atea pertsona eta animalientzat berbera zen. Ataripetik eta barruko atalondo zabaletik sartzen zen. Atalondoak ia bigarren habearte osoa hartzen du, eta berau etxeko lantegi, banatoki, biltegi eta askak zaintzeko barnebidetara gisa erabiltzen dute. Atariaren izkina batean sukaldea dago, zabala eta argia; kanpoaldean erantsitako ogi-labera heltzeko, sukaldearen alboko horman sarbide bat aurkitzen dugu.



Lehen oinean, fatxadaren pareko habeartean egongela aurkitzen da, eta honen alboetan berriz logelak. Multzo horretan, baserriko etxebizitzagiroa bilatzen da; bigarren habearte banatoki funtzioetarako soilik uzten da. Habearte hauen gainean teilatupeko gela dago, aletegi, lehorte-gi eta ganbara gisa erabiltzen dena; horrenbestez, eta etengabeko aireztatzea eman dadin, fatxadako piñoian ez dago itxiturarik.

.Tipologia eta historia

Baserriak historikoki Oma Zearra eta Zierra izena izan du; hala ere XVI-II. mendearen erdira arte, etxearen jabetza independentea mantendu zuten bertako biztanleen abizena ere izan zen.

Etxea XVI. mendearen azken urteetan eraiki zuten. Eraikinean bertan bi garai ezberdinen arteko iragaitealdi bateko osagai guztiak ikus daitezke. Egiturako pieza bakarreko pilare handiak garai hartarako arkaismoko ezaugarriak ziren; hala ere, txarrantxa luzez osatutako zurezko egitura modeloa, petral soilez estalitako armaduraren diseinua eta, batez ere, goiko oinean etxebizitzako gelak ezartzeko aukera eman zuen garapen bertikala, zalantzarik gabe, XVI. mendeko baserri bizkaitarraren modelo klasikoekin alderatuta aurrerapen historikoa eta tipologikoa ziren.

.Dokumentazio grafikoa



*Kokapena*

*Zierre baserria*

*Ikazuriaga baserria*



*Ingurunea*

Bizkaian, Kortezubiko Oma auzoan kokatua, eskualdeko komunikazio bide tradizionaletatik kanpo dagoen sakonunean metatutako baserri osatutako auzoan ageri da Zierre baserria. Ingurua, orokorrean maldatsua da, mendi ugariz iguratua.

Bizkaian, Nabarnizko Ikazuriaga auzoan kokatua dago Ikazuriaga baserria. Eskualdeko komunikazio bidean kokatzen da, eremu maldatsuan metatutako baserri osatutako auzoan hain zuzen ere. Ingurua, orokorrean maldatsua da, mendi ugariz iguratua.

*Kokalekua*

Baserrriak hartzen duen azalera osoa, lursail lauen kokatzen da, hortaz, baserriko gela guztiak lur kotatik gora aurkitzen dira, ez dago lurperatutako zonarik. Altxaera nagusia, hegoaldera horientatua dago.

Baserrriak hartzen duen azalera, maldadun lursailean kokatzen da, mendia jarraitzen du eta hortaz, baserriko zona batzuk lurperatuak aurkitzen dira. Esanguratsuen ukullua da, atzealdeko altxaera 3metrotan lurperatua baitago. Altxaera nagusia, hegoekialdera horientatua dago.

*Berezitasuna*

-

Baserri hau, jatorrizko harkaitz biziaren gainean eraikia dago. Harkaitza baserriaren beheko oinean ikus daiteke, bai atalondoan zein ukillu aldean ere.

*Itxiturak.  
Fatxada  
nagusia*

*Zierre baserria*

*Ikazuriaga baserria*



*Konposizioa*

Hegoaldeko altxaera, itxitura nagusia da, ataripedun fatxada du erdialdean zutabe bat nabarmentzen delarik.  
Tratamendu ezberdina nasbaritzen beheko solairuko itxituretan eta goiko solairuetako itxituretan. Balkoia lehenengo solairuan.  
Fatxada zuratuko egitura. Egitura bertikala nabarmentzen da.

Hegoekialdeko altxaera, itxitura nagusia da, ataripedun fatxada du, nahiz eta egun, itxitura bat jarri dioten.  
Tratamendu ezberdina beheko solairuko itxituretan eta goiko solairuetako itxituretan. Balkoia lehenengo eta bigarren solairuetan.  
Fatxada zuratuko egitura. Egitura bertikala nabarmentzen da.

*Materiala*

Kare harria eta fatxada zuratuko hormatalen nahastea.  
Manposteria, harri horma lodiko hormaz eraikia.  
Goiko solairuetan adreiluaren erabilera manposteria entramatuen arteko itxituretan.

Kare harria eta fatxada zuratuko hormatalen nahastea.  
Manposteria, harri horma lodiko hormaz eraikia.  
Goiko solairuetan zurezko entramatua, adreilu gabe harrizko manposteriarekin arteko itxituretan, luzitua.

*Proportzioa*



Lau habearte nagusitzen dira, altxaerak bertikaltasuna nabarmentzen du barneko espazioa islatua geratzen delarik.

Lau habearte nagusitzen dira, nahiz eta atarteak zutaberik ez eduki.  
Altxaerak bertikaltasuna nabarmentzen du barneko espazioa islatua geratzen delarik.

*Itxiturak.  
3 altxaerak*

*Zierre baserria*

*Ikazuriaga baserria*



*Konposizioa*







Altxaera nagusia ez bezala, baserriaren beste hiru itxitura hauek konposizio sinplea adierazten dute. Horma amaieratan harlanduzko piezak batzen dute itxitura bat bestearekin. Ez da irekidurarik ikusten eta metxinal batzuk nabaritzen dira.

Baserriaren beste hiru itxitura hauek konposizio sinplea adierazten dute. Horma amaieratan harlanduzko piezak batzen dute itxitura bat bestearekin. Atzealdeko fatxadak ate bat du 1. solairuko lastategira sartzeko. Irekidura batzuk ikusten dira eta metxinal batzuk nabaritzen dira. Ukuilurako sarrera zuzen bat dago arku zorrotz berantiardun ate baten bitartez.

*Materiala  
Estalkia*

Hiru itxiturak, Kare harrizko harri horma lodiko hormaz eraikiak daude. Zierre baserriak petral-armaduraz eraikitako bi isuriko estalkia du eta atzealdean mirubuztan bat du. Estalkia itxiturako horma hauetan finkatzen da. Honek zurezko egitura du eta teilez estaltzen du eraikina.

Hiru itxiturak, Kare harrizko harri horma lodiko hormaz eraikiak daude. Ikazuriaga baserriak petral-armaduraz eraikitako bi isuriko estalkia du. Estalkia itxiturako horma hauetan finkatzen da. Honek zurezko egitura du eta teilez estaltzen du eraikina.

| <i>Erabilerak.</i>   | <i>Zierre baserria</i>                                                                                                                                                                                                 | <i>Ikazuriaga baserria</i>                                                                                                                                                                                                                                                           |
|----------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>behe solairua</i> |                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                   |
| <i>1. solairua</i>   |                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                   |
| <i>estalkipea</i>    |                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                  |
| <i>Behe solairua</i> | Bi alde nagusitan banatzen da. Sarrera ataripetik ematen da, jarraian atalondoa eta gorako eskailerak aurkitzen dira. Alboetan aldiz sukaldea ezkerrean eta biltegia. Atzealdean kokatzen den oin erdian ukuilua dago. | Bi alde nagusitan banatzen da. Sarrera egun itxita ageri den ataripetik ematen da, jarraian atalondoa eta gorako eskailerak aurkitzen dira. Aurrealdeko espazioan da sukalderik ageri, sutea atalondoa jartzen baitzuten tximinia barik. Atzealdean kokatzen den oin erdian ukuilua. |
| <i>1. solairua</i>   | Eskaileratik erdigunera iritsita, korta gainean lastategia aurkitzen da, solairu bi hartuz. Ataripe gainean egongela, altxaera nagusira balkoi irteerarekin. Egongelaren albo bakoitzera logela bana.                  | Eskaileratik erdigunera iritsita, korta gainean lastategia aurkitzen da, solairu bi hartuz. Ataripe gainean egongela, altxaera nagusira balkoi irteerarekin. Egongelaren albo bakoitzera logela bana.                                                                                |
| <i>Estalkipea</i>    | Azken solairu honetan, fatxada nagusira ematen duen oin erdian ganbara aurkitzen da. Atzeko aldean lastategia ikus daiteke altuera bikoitza baitu.                                                                     | Azken solairu honetan, fatxada nagusira ematen duen oin erdian ganbara aurkitzen da. Atzeko aldean lastategia ikus daiteke altuera bikoitza baitu.                                                                                                                                   |

Egitura.

Zierre baserria

Ikazuriaga baserria



Sistema

Sostengu egitura arotzeriazkoa da zurezko piezaduna, oztikoz, indartua. Behe solairuan zurezko zutabeak harroinen bitartez lotzen dira zorura. Zuraz gain, altxaeretako harrizko horma sendoek ere eusten dituzte eraikineko kargak. Altxaera nagusian entramatu bidez bideratzen dira kargak behe solairuko harrizko hormara heldu arte.

Sostengu egitura arotzeriazkoa da zurezko piezaduna, oztikoz, indartua. Behe solairuan zurezko zutabeak harroinen bitartez lotzen dira zorura. Zuraz gain, altxaeretako harrizko horma sendoek ere eusten dituzte eraikineko kargak. Altxaera nagusian entramatu bidez bideratzen dira kargak behe solairuko harrizko hormara heldu arte.

Lotura

Zurezko egiturako elementu ezberdinen arteko loturak bermatzeko, mi-hiztadurak buru poliedriko lodiko zur-zirien bidez finkatuak ageri dira. Altxaera nagusira ezik, gainerako harrizko altxaeretara, zurezko egitura elementuak enpotramentuz lotuak ageri dira.

Zurezko egiturako elementu ezberdinen arteko loturak bermatzeko, mi-hiztadurak buru poliedriko lodiko zur-zirien bidez finkatuak ageri dira. Altxaera nagusira ezik, gainerako harrizko altxaeretara, zurezko egitura elementuak enpotramentuz lotuak ageri dira.

Barne banaketa

-

Baserri barruko banaketa hormak zurezko entramatuarekin eraikiak daude. Fatxada ematen den sistema islatuz.





*07. Eranskinak.*



ERANSKINAK.

Bizkaiko artxibo notarialean hurrengo dokumentua aurkitu da, zeinetan, Ikazuriaga baserriaren 1571 urteko aipu bat aurkitzen den.



Archivo Foral de Bizkaia

03-02-2016 13:26:03

Sekzioa Notarial  
 Funtisa MERINDAD DE BUSTURIA  
 Funtis-azpia ITURRONDO MARTIN ORTIZ DE  
 Data 1571-02-25  
 Signatura N0358/0252  
 Eskribaua ITURRONDO MARTIN ORTIZ DE  
 Orriak 4


Laburpena Escritura de donación otorgada por Pedro Sáez de Icazuriaga y su mujer Domeca de Icazuriaga, vecinos de la anteiglesia de Navarniz, en favor de Francisco de Insaurraga, de la misma vecindad, de la casería de "Insaurraga", sita en la citada anteiglesia.

Sekzioa Notarial  
 Funtisa MERINDAD DE BUSTURIA  
 Funtis-azpia ITURRONDO MARTIN ORTIZ DE  
 Data 1571-03-12  
 Signatura N0358/0253  
 Eskribaua ITURRONDO MARTIN ORTIZ DE  
 Orriak 1

Laburpena Escritura de cesión otorgada por Pedro Sáez de Icazuriaga en favor de Francisco de Insaurraga, de doscientos cincuenta ducados de dote para su matrimonio con Domeca de Icazuriaga, para la casería de "Icazuriaga", en Navarniz.

Sekzioa Notarial  
 Funtisa MERINDAD DE BUSTURIA  
 Funtis-azpia ITURRONDO MARTIN ORTIZ DE  
 Data 1575-01-30  
 Signatura N0360/0031  
 Eskribaua ITURRONDO MARTIN ORTIZ DE  
 Orriak 2

Laburpena Escritura de venta otorgada por Ochoa de Insaurraga, vecino de la anteiglesia de Navarniz, en favor de Hortuño de Uriarte, en nombre de los herederos de Juan de Garay, de un censo de calores ducados de principal y un ducado de renta anual, hipotecando para ello la casería de "Icazuriaga", sita en Navarniz.



Archivo Foral de Bizkaia. Dokumentu Notariala







*08. Ondorioak.*





## ONDORIOAK

Baserria ekintza sozioekonomikoen zelula antolatzailea da. Izan ere, Nabarnizko ekonomiaren ardatza nekazaritza izan da betidanik, eta horren oinarri baserria. Baserrak bakoitzak bere ortua, landatzeko zelaiak eta fruta arbolak ditu. Baserriak bertan bizi zirenei behar zutena eskaintzen zieten unitate autonomoak dira.

*Baina gaur egun izaera hori aldatzen doa, baserri guztiek ez dute garai bateko funtzioa bermatzen. Zer gertatu da?*

XX. mendeak aurrera egin ahala, gauzak aldatuz joan dira. Bizkaiko nekazaritza-herri gehienetan gertatu bezala, landa munduaren gainbehera etorri zen industrializazioaren garapena zela eta.

Gauzak horrela, baserriak eta herria bera, hustuz joan dira eta herriko biztanle askok Nabarnizen kasuan, Gernikara lehenik eta Bilbora ondoren jo dute, bizimodu hobearen bila.

*Lehenengo sektorean lan egitea, ezinbestekoa da biziraupenerako. Kontziente gara? Aintzat hartzen da?*

Nabarnizen eraikuntza arkitektoniko erlijiosoak garrantzi handia izan arren, auzotarrak bizi diren baserriak osatzen dute ondarea. Izan ere, elizatearen ezaugarri nabarmenena, hauek dira, nekazaritza oinarri duen ekonomia baten beharrianak sortutako garai eta errotekin batera, Erdi Aroa ezker tarte geografikoaren protagonista garrantzitsuenak.

*Zer egin behar da ondare honekin? Hiltzen utzi? Berrerabili? Eraldatu?*

Baserriek denboran zehar produkzio sistema aldaketa ezberdin ugari pairatu izan dute eta egoera ezberdinetara moldatu izan dira. Baina baserriak etxebizitza ere bere baitan hartzen du eta argi dago bizitzeko moduan ere aldaketa eman dela. Egungo familiak kopuru murriztekoak dira eta ez da egokitzen egungo familien beharrianetara.

*Ikus daitezke inguruan baserria elkarbanatzen dituzten familiak, hau al da bidea? Baserria zatitzea?*

Gaur egun bizitzeko dagoen sistema eta baserriak zuena, ez datoz bat, baserria unitate bakar moduan bizi izateko pentsatua zegoen eta bizitzaz gain landa, nekazaritza, beregain hartzen zuen.

*Zer da Ikazuriaga moduko baserri batean planteatu behariko zena, hau berri bizi izana bilakatu daiten? Egun ukuilua, lastategi eta lehorleku moduan baino ez da erabiltzen...*

Euskal Herrian dugun ondare arkitektoniko hau mantendu nahi bada, erabili egin behar da, bestela hil egingo da. Gogoeta sakona eskatzen du honek, izan ere erabiltzea bai baina nola, jakin behar da. Herri antolamendua eta eskualde antolamendua ere estuki lotuak daude. Baserria ez baita landa lurrik gabe, eta zelula burujabea bada ere, eskualdeko sarearen zati da.



*09. Etorkizunerako lerroak.*



## ETORKIZUNERAKO LERROAK

Baserrien inguruan lan handia egiteko dagoela uste den heinean, ikerketa lan honetan atalburu hau gehitzea erabaki da.

Ikertu den gaia mamitsua da, eta hitz bakarrean borobiltzen den arren, alor ugari biltzen ditu bere baitan. Hala nola, arkitektura, hirigintza, ondarea edota sozio-ekonomia, haratago; zurezko egiturak, harrizko egiturak, espazioen diseinua, baserrien arteko loturak, landa eremu eta etxebizitzaren arteko harremana, herri antolamendua, eskualdeko herrien arteko lotura harremanak, zahar berritze lanak, lehenengo sektorearen egoera...

Ibilbide pertsonalaren ildotik, etorkizuneko hiru lerro dira aipagarri:

1. *Baserrietako zurezko egituren ikerketan sakontzea.*
2. *Eskualdeko antolamenduaren ikerketa eta proposamena, eskala ezberdinak aintzat hartuta.*
3. *Baserrien biziraupenerako estrategiak ikertzea.*



## *10. Bibliografia.*





## LIBURUAK

.Bizkaia: Arqueología, Urbanismo y arquitectura histórica.

Jose Angel Barrio Loza.

Diputación de Bizkaia, Unibersidad de Deusto, Bilbao.

1989-1991

.Arquitectura doméstica: Historia de un proceso económico y cultural.

Alberto Santana.

2012

.Arquitectura civil: Historia de un proceso artístico y cultural en Euskal Herria.

Roberto M. Aspiazu, Xipri Arbelbide

.La arquitectura del Caserío Vasco.

Alfredo Baeschlin

Biblioteca Vascongada Villar, Bilbao, 2000.

.Bertan Baserria.

Alberto Santana

Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Turismo, San Sebastián, 1993.

.Los Caseríos Vizcaínos.

Alberto Santana

Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Turismo, San Sebastián, 1993.

.Euskal Herriko Baserriaren Arkitektura. Historia eta tipología.

Alberto Santana, Juan Angel Larrañaga, José Luis Loinaz Alberto Zulueta.

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Donostia-Gasteiz 2002

.Euskal Herriko Baserriaren Arkitektura. Baserriak.

Alberto Santana, Juan Angel Larrañaga, José Luis Loinaz Alberto Zulueta.

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Donostia-Gasteiz 2002

.Casa y familia en Vasconia.

Etniker Euskal Herria. Labayru.

Bizkaiko Foru Aldundia.

.Ereño y Nabarniz. Monografías de pueblos de Bizkaia.

Igone Etxabe Oribe.

Bizkaiko Foru Aldundia.

.Kleine Kunstgeschichte des Deutschen Fachwerkbaus.

Günther Binding, Udo Mainzer, Anita Wiedenau.

Wisswnschaftliche Buchgesellschaft Darmstadt.

1984.

.The image of the city.

Kevin Lynch

Massacgusetts Institute of Technology. 1960.

## IKERKETA LANA

.IbarrolaH

Ibon Telleria Julian

2009

## ITURRI EZBERDINAK

.Euskadiko dokumentuak. dokuklik.

.Bizkaiko Foru Aldundia.

.Bizkaiko katastroa.

.Geoeuskadi, ortoargazkiak.

.Kartografia. Fondoscartográficos.

.Kartografia. apli.bizkaia.net.

.Kartografia. Bibliotecavirtualdefensa.



...baina nire *amaren* etxeak iraunen du zutik.